


#65 / 2025 URRIA

arteka



**TRANTSIZIOA:
DENA ALDATZEA
EZER EZ
ALDATZEKO**

GEDAR

— **E**gun, hala
autodeterminazio
eskubidea nola prozesu
demokratikoa, haustura demokratikoa,
iraultza demokratikoa, etab. paper
errea dira sozialdemokraziaren eta
errebisionisten eskuetan. Ez dute ezer
esan nahi eta ez diote erreferentziarik
egiten benetako indarrei: bere oinarrien
bizkar bizi den burokrazia batek bere
burua zilegiztatzeko trikimailu huts
bihurtu dira. 78ko Erregimena subjektu
sozialdemokratak analitikoki eraikitako –
nahiz eta gutxi garatutako– salbuespen
egoera bat da, ez beste. Eta subjektu
horrek bilatzen duena sozialismorako bide
zuzena desartikulatzea da, sozialismoa
zuzenean ezinezko bilakatzen duen
fase bat aldarrikatzearen bitartez

Edulxia

6

EDITORIALA

Arteka

78ko erregimena eta iraultza demokratikoa

8

KOLABORAZIOA

Adrian Almeida

1978ko erregimenarekin bueltaka. Kontzeptua, memoria eta iraultzaren auzia

24

KOLABORAZIOA

Irati Z. eta Zoihartze O.

Trantsizioaren mitotik haratago: Portugal, Grezia eta Espainia diktaduren amaieraren aurrean

40

KOLABORAZIOA

Jon Aldabaldetrek

Hautsi ezin zen soka: demokrazia burgesa bermatzeko akordio politiko-sozial garrantzitsuak Trantsizio garaian

58

KOLABORAZIOA

Naia Gurrutxaga

Bakearen eta aliantzaren artean: NATOren aurkako borroka Espainian eta Hego Euskal Herrian

78ko erregimena eta iraultza demokratikoa

Editoriala

Erreformismoaren eta errebisionismoaren begietan, beti geldituko da zeregin bat egiteke, eta ezinbestekoa da zeregin hori ebaztea sozialismoaren auziari heldu baino lehen. 1917ko Errusian, errebisionistek aldarrikatzen zuten beharrezkoa zela burgesiak gidatutako fase luze bat egotea, eraldaketa ekonomiko kapitalista gauzatzeko. Alabaina, burgesia hori guztiz baldintzatzen zuten estatu tsaristak eta Ingalaterrako eta Frantziako burgesiekin zituen paktuek; ondorioz, eraldaketa hori gauzatzeko ezgai zen, bide demokratikotik dominazioa gauzatzeko ezgai. Otsaileko Iraultzan jaiotako gobernu babestea eta Errusiako garapen ekonomikoa –iraultza demokratikoa, ekoizpen indarren garapena eta antzeko terminologia marxistaz apainduta– aitzakia perfektua ziren iraultza sozialistaren aldeko alderdiei aurka egiteko: historiako fase hari zegokiona burgesiarren gobernu demokratikoa babestea zen, nahiz eta gobernatzeko gai ez zela erakutsi.

Ziur bati baino gehiagori ezaguna egiten zaiola formula hori: babes dezagun trantsizio fase bat burgesiarekin batera, nahiz eta burgesia horretarako prest ez egon, eta ez nahi ez duelako, baizik eta ezin duelako. Hala, adibidez Euskal Herrian, nazionalistek sozialismoaren aurreko fase bat aipatzen dute, independentziaren fasea; fase demokratiko horretan, helburu nagusia erregimen berezi batekin haustea izango litzateke, hain zuzen ere “78ko Erregimena” deitu zaion horrekin.

Kasu honetan, 78ko Erregimenak betetzen duen funtzio sinbolikoa Errusian nazioaren garapen ekonomikoak (urria) betetzen zuena edo gobernu demokratikoari eman beharreko babesak (tsarismoaren oposizioan konkistatua) betetzen zuena bezalakoa da: erregimena salbuespen egoera baten

sinbolo da, eta ezinbestekoa da harekin bukatzea; bukatu behar horrek trantsizio demokratikoko fase bat justifikatzen du, eta fase hori ez dagokio soilik proletariotzari, baizik eta nazio osoari. Beste aldetik, ekoizpen indarren garapen falta aitzakiatzat erabiltzen zen proletariotzaren gidaritzapeko iraultza bati aurka egiteko, nahiz eta azken finean horixe izan gertatu zena, iragarpen errebisionista ororen kontra; horrek marxismoaren eta mugimendu komunistaren irakaspen funtsezko bat utzi zien hurrengo belaunaldiei: analisiak ez du subjektua jartzen, baizik eta subjektua da analisisa jartzen duena.

Errusian, analisi errebisionistek errealtatearen kontra jotzen zuten, dominatzeko gai ez zen klase baten dominazioa aldarrikatzen baitzuten. Modu berean, Euskal Herrian sozialismoaren aurreko fase gisa independentzia aldarrikatzea kimera hutsa da, helburu duena proletariotza subjektu independente gisa desgaitzea, hura kondenatzen baitu beste klase

Ziur bati baino gehiagori ezaguna egiten zaiola formula hori: babes dezagun trantsizio fase bat burgesiarekin batera, nahiz eta burgesia horretarako prest ez egon, eta ez nahi ez duelako, baizik eta ezin duelako

batekin modu desesperatuan aliantza bat bilatzera, nahiz eta, independentismoari dagokionez, klase hori ez dagoen prest, ez eta inoiz egongo ere, bere funtzio historikoa guztiz agortua baitago alor horretan.

Horri zor zaio, halaber, autodeterminazio eskubidearen gainean ditugun posizioak berritzeko beharra. Burgesia prozesu independentistan parte hartzeko eta hura gidatzeko gai ez den subjektua bada eta, gainera, funtzio historiko progresista bat izateko aukera oro agortu badu, zergatik aitortu inongo eskubiderik?

Leninen garaiak eta gureak bereizten dituen honako hau da: XX. mende hasieran nazio subjektuak gorakada betean zeuden, batez ere burgesia bernakularrek subjektu politiko gisa eraiki behar zutelako beren burua, potentzia inperialisten dominazio kolonialarekiko oposizioan. Hala, Lenin gai izan zen nazio zapalduetan aldi baterako nolabaiteko aliatuak identifikatzeko; hala, beharrezkoa zen nazio zapaldu horiek taktika egokiaren bidez erakartzea, hau da: nazioek autodeterminaziorako zuten eskubidearen aitortza. Gaur egun kontsigna horrek bidezkoa izaten jarraitzen badu ere, neurri handi batean garaiek gainditutako kontsigna bat da, nolabait hutsala –nahiz eta salbuespenak egon daitezkeen, hala nola Palestina–; izan ere, ez dago kontsigna hori jasoko duen subjekturik, kontsigna horrekin identifikatu daitekeen subjekturik. Ondorioz, ezinbesteko zaigu proletariotzarengan identifikatzea autodeterminazioaren subjektu berria; hala, posible izango da politika errebisionistaren ulerkera demokratiko burgesarekin apurtzea, zeinak asmozat duen proletariotza prozesu demokratikoetara ainguratzea –independentzia eta haustura balizko erregimen aurre demokratiko batekiko–, aliantza eratuz koordinatu horietan existitzen ez den eta existituko ez den burgesia batekin.

Leninen taktikaren arabera proletariotza mugimendu nazional burgesetatik askatzeko formula bat zen hura, gaur egun guztiz kontrakoa bihurtu da: sozialismoaren aurreko fase demokratiko baten aldarrikapenak, izan prozesu independentistaren formulapean, izan nazio osoari dagokion autodeterminazio eskubidearen formulapean; edo izan, 78ko Erregimena gainditzeko formulapean, proletariotza existitzen ez diren prozesuekin lotzen du, existitzen ez diren aliatuekin, gainera.

Kontrara, taktika leninistan, autodeterminazio eskubidearen zioa da nazionalismoaren inguruan eraikitako unitate interklasista suntsitzea. Helburua zen nazio guztiei eskubide berdinak ematea, horrek balio zezan nazionalismoa desartikulatzeko eta proletariotza internazionalismoaren inguruan hezi eta antolatzeko.

Euskal Herrian sozialismoaren aurreko fase gisa independentzia aldarrikatzea kimera hutsa da, helburu duena proletariotza subjektu independente gisa desgaitzea, hura kondenatzen baitu beste klase batekin modu desesperatuan aliantza bat bilatzera, nahiz eta, independentismoari dagokionez, klase hori ez dagoen prest, ez eta inoiz egongo ere, bere funtzio historikoa guztiz agortua baitago alor horretan


Errebisionisten esanetan, iraultza demokratikoa burgesiak dominatutako fase interklasista bat zen; kontrara, taktika leninistaren arabera, iraultza hori proletariotzaren gidaritzapean eta nekazariekin aliantzan bakarrik gauza zitekeen. Programa konkretuaren funtsa ekoizpen indarren garapena zen, proletariotzaren indar iraultzaileak garatzen laguntzeko, komunismorako bidean.

Egun, hala autodeterminazio eskubidea nola prozesu demokratikoa, haustura demokratikoa, iraultza demokratikoa, etab. paper erreka dira sozialdemokraziaren eta errebisionisten eskuetan. Ez dute ezer esan nahi eta ez diote erreferentziarik egiten benetako indarrei: bere oinarrien bizkar bizi den burokrazia batek bere burua zilegiztatzeko trikimailu huts bihurtu dira. 78ko Erregimena subjektu sozialdemokratak analitikoki eraikitako –nahiz eta gutxi garatutako– salbuespen egoera bat da, ez beste. Eta subjektu horrek bilatzen duena sozialismorako bide zuzena desartikulatzea da, sozialismoa zuzenean ezinezko bilakatzen duen fase bat aldarrikatzearen bitartez. ●

1978KO ERREGIMENAREKIN BUELTAKA

KONTZEPTUA, MEMORIA ETA IRAULTZAREN AUZIA

Testua — **Adrian Almeida**



Espainiako Trantsizioari buruzko proposamen intelektual eta politikoak erdibituta azaltzen dira; batetik, “bigarren trantsizio” batera itzultzearen alde egiten zutenak, eta, bestetik, tradizio erudituak, itxuraz jarrera kritiko eta sutsu batekin, “78ko erregimena” gainditzearen alde egiten zutenak. Lehenengoek adostasun zabaletara itzultzearen fikzioa eskaintzen zuten, sozialdemokraten eta kontserbadoreen arteko koalizio handien babespean eta, protesta eta antagonismo agerpenen aurrean, estatu arrazoiaren alde. Bigarrenak, uni-bertsitateko progresistak eta Euskal Herriko eta Kataluniako nazionalistak, ahalegin politiko eta suhertasun handiagoarekin edo txikiagoarekin, herensuge-ehizan saiatzen ziren, zenbait promesa beteko zutela agintzen zuten bitartean: erabateko demokrazia, polizia eta epailei beren oinordetza frankista erauztea, enpresarien boterea mugatzea, edota 1976aren amaieran (Erreforma Politikorako Legearen onarpenarekin) diseinaturiko erregimen politikoa defendatzen zuten hedabideak salatzea. Trantsizioa gainditzea beste trantsizio bat ahalbidetzeko, oraingoan bai benetan demokratikoa izango zena, izan zen, besteak beste, Podemos alderdiaren leitmotiva orain dela hamar urte, eta bada, adibidez, EH Bildurena eta Esquerrarena oraindik ere.

Artikulu honen asmo nagusia da, hain zuzen ere, alderdi ezkertiarrek eta nazionalistek erabiltzen duten fikzio kontzeptual horixe argitzea; hau da, 78ko erregimena hedatzea proposatzen duen hori bera. Izan ere, historikoki, alderdi horiek saiatu dira garaiaren kontakizun kritiko bat eraikitzen, helburu izanik fikzio estrategia antisistemiko bat garatzea eta teorikoki borrokatutako aldeari eskari jakin batzuk aitor diezazkioten eskatzea. Horren haritik, 78ko erregimenaren ikuspegi partikular hori alokuzio kontzeptual zehatz bat kontsideratzen da, zeinak ez baitu islatzen kritikaren jomugak –1975aren ondorengo Estatua– barnebiltzen dituen determinazioen multzoa. Horregatik, erreferentzia abstraktu eta espezifikoa egiten zaio errealtate honi: Estatu kapitalistak haren garai esplizituki diktatorialetik ateratzean ezarri zuen harreman politikoen sistema. Frankismo osteko Estatuari egindako kritikan aldebakartasun hori onartzeak, ekoizpen sistemaren zentzu orokorretik kanpo, ziurrenik *ad infinitum* iraunarazi du borroka politikoaren eta ekonomikoaren arteko bereizketa.

Horrekin guztiarekin, erreferentzialtasun historikoari dagokionez, aski litekeena da hirurogeita

hamarreko hamarkadako klase borrokak eta langile klasearen iraultzarako ezintasunak markatutako iragana samintasunez eraldatu izana, gaur egun demokrazia hedatzeko esperientzia alferrik galdu bihurtzeraino. Edo gauza bera dena, deskribatuko dugun bezala, iraganarekiko erreferentzialtasun zehatzik gabeko gogora ekartze bat gertatzen da, eta behin eta berriz gizentzen da egungo ustezko hausturarako itxaropen aukera. Horrela, esate baterako, Emmanuel Rodriguez autoreak nabarmendu du langileen autoantolaketa moduek beren helburu iraultzaileak lortu izan ez bazituzten ere, autoantolaketa-esperientzia horiek “beste demokrazia mota batzuk” eskaini ahal izango lituzketela.

UDABERRI ASANBLEARIOA, LORALDI IRAULTZAILEA?

Egungo hausturaren gainean egiten dituen interpretazio espezifikoak justifikatzeko iraultzaren aukera historiko alferrik galduei balioa kentzen dien pentsamendu ildoa agerian uzteko, historiaren errepasso labur bat egin behar dugu. Horri dagokionez, zalantza handirik gabe baieztatu daiteke honako ideia hau: 1974an, Euskal Herriko lantegietan eta hiri inguru proletarioetan, bai eta estatuko beste ingurune industrializatu batzuetan ere, autoantolatu ziren taldeek eremu ireki bat eskaintzen zieten antolakunde iraultzaile asko eta askori politikan parte hartu ahal izateko. Asanbladak modu espontaneoan ugaritu ziren, garai hartako krisi kapitalistaren errealtatearen ondorioz eta hasiera batean klase izaera zuen kolektiborik ez egotearen ondorioz –diktadurak debekatu eta erreprimitu egin baitzituen–; ugaritze dinamika horri

Trantsizioa gainditzea beste trantsizio bat ahalbidetzeko, oraingoan bai benetan demokratikoa izango zena, izan zen, besteak beste, Podemos alderdiaren leitmotiva orain dela hamar urte, eta bada, adibidez, EH Bildurena eta Esquerrarena oraindik ere

Frankismo osteko Estatuari egindako kritikan aldebakartasun hori onartzeak, ekoizpen sistemaren zentzu orokorretik kanpo, ziurrenik "ad infinitum" iraunarazi du borroka politikoaren eta ekonomikoaren arteko bereizketa

esker, lehen urratsak ematen hasiak ziren zenbait organismoren artean mezu iraultzaile bat zabaldu zen. Organismo berri horiek, laster alderdi forma hartuta eta kontsejismoak eta Portugalen gertatu berria zen matxinadaren esperientziak eraginda, askotan arrakasta baino suhertasun handiagoarekin, indarra hartzen saiatuko ziren, eta etorkizun iraultzaile batera bideratzen, benetako langile boterearen ikuspegitik. Matxinada eta haren ondoriozko goraldi iraultzailea zerumuga posible gisa agertzen zen, euskal lurraldeetan behinik behin, autoantolaketaren hedapen horren bitartez.

Artikulun kritikatzen dugun mitifikazioa ez erreproduzitzearren, nabarmendu behar da asanblada-ekimen asko hasiera batean langileen eta herriaren antolaketa modu espontaneo gisa baino ez zirela eratu. Antolakuntzari zegokionez alderdi politiko klandestinoekiko eta sindikalismo bertikalarekiko independenteak izateak ez zuen esan nahi, halabeharrez, patronalaren aurrean edota estatu kapitalistaren eta haren diktadura-erregimenaren aurrean haustura iraultzailea eragingo zuen independentzia politikoa zeukatenik. 1974an Artiacheko galleta-fabrikako (Bilboko Deustuko Erribera inguruan) emakume proletarioek nabarmendu zutenez, esperientzia haren alderdirik garrantzitsuena zen konturatzea asanbladak “beharrezkoak zaizkigula daukagun edozein arazo elkarrekin konpontzeko”. Batzuetan, zenbait asanbladak esplizituki arbuiatu zuten haustura-zentzuan proposatutako politizazioa; beste batzuetan, ordea, 1976ko Gasteizko asanbladan, adibidez, ezker iraultzaileko taldeek posizio irmoa ezartzea lortu zuten, eta hori erabili zuten auzia berehalako aldarrikapen ekonomikotik haratago eramateko eta borrokak lantegietatik kanpo ere zabaltzeko. Gauza bera gertatu zen Nafarroan garrantzi handia izan zuen 1974ko abenduaren 11ko grebarekin.

Bi adibide horietan, eta Bizkaian eta Gipuzkoan izandako horrelako beste gertakari batzuetan, ikusten den bezala, haustura iraultzailera iristeko benetako elementuak egon baziren ere, asanblada bidezko antolaketa-era ez zen berez gai izan modu

bateratuan horrelako apurketa historikorantz aurrera egiteko. Ironikoki, asanbladaren indar berak hasiera batean joera kontsejistak finkatu zituen, baina baita arian-arian mugimendu autonomoak bideratutako proposamenak ere, zeinak asanbladaren esperientzian automatikoki antikapitalista zen erantzunaren agerraldia eta gizarte komunistaren aurrerapena sumatzen zituen. Kasu bietan, eta baita jarrera leninista argiagoa zutenetan ere, militanteak eta ideia iraultzaileak asanbladetan sartzeko prozesua ziur aski mugatua izan zen bai geografiaren aldetik, bai denboraren aldetik. Hala ere, militanteen artean iraultzaren aurreko garaia benetan bizitzen ari zirelako ideiak iraun zuen, ulergarria eta naturala den moduan, bestalde. Dena den, izan bokazioagatik edota espontaneotasuna gurtzeagatik, izan erreferentzialtasun ezagatik, izan dinamika asanblearioek beraiek gainezka egiteagatik, edo izan, azken horri dagokionez, asanbladen ekimenen aurreko inpotentzia-rengatik, iraultzaren zerumugarantz egiteko jauzia ez zen gauzatu.

Funtsezkoa da gogoratzea, halaber, 1976an, batez ere Gasteizko martxoaren 3ko erailketen ondoren, diktaduraren aurkako talde moderatuenek (PCE, PSOE eta EAJ, besteak beste) irmotasunez ekin ziotela, nahiz eta itxura mesfidatia agertu, elite frankistekin hitzarmena gauzatzeari. Agintari polizialen artean benetako izu giroa sumatzen zen, matxinada piztuko ote zen, eta lan-gatazken politizazioaz eta “diktadura gorriaren atariaz” hitz egiten zuten. Horrela, Arias Navarroren kabineteak Gasteizko zauria bat-bateko esku kolpe batekin itxi zuen, eta era horretan erakutsi zien PCEri eta PSOEri gerra zibilera iristeko guztiz prest zegoela. Ez zen beharrezkoa izan, jakina. Erreakzioa nagusitu egin zen, baita ikuspegi iraultzaileak asanbladetan aurrerapenik txikiena egin baino lehen ere, eta negoziazio-aldi bat hasi zen, zeina amaitu baitzen nolabaiteko irekiera batekin Gorte frankistek 1977an sufragio unibertsala onartzean. Imanol Satrustegi historialariak adierazi zuen bezala, hura “erreakzio prebentibo” moduko bat izan zen.

1974an, Euskal Herriko lantegietan eta hiri inguru proletarioetan, bai eta estatuko beste ingurune industrializatu batzuetan ere, autoantolatu ziren taldeek eremu ireki bat eskaintzen zieten antolakunde iraultzaile asko eta askori politikan parte hartu ahal izateko

Ordurako ziklo asanblearioa noraezean zegoe-la, porrot teknikora bidean, nolabaiteko arraste-arrantza egitea bilatzen zuten sektoreak agertu ziren. Sektore horien asmoa zen sarea botatzea, oposizio moderatuak inoiz bere egin ez zituen zenbait eskaeraren aldarrikapenak eskainiz zer-bait arrantzatzen saiatzeko. Baina, hori eginda, ziurrenik, asanblada-forma eta haren ahalmena ahuldu egiten zuten, bai eta asanbladetan kontzientziazio iraultzailea zabaltzeko proposamenik aurreratuenak ere. Maila horretako ekimenak ezker erradikalaren zein ezker abertzalearen sektore batzuetatik abiatu ziren, eta sektore horiek etorkizuneko estatu kapitalista demokratizatuaren aurrean negoziatzeko proposamena 1976ko udan plazaratu zuten.

Aurreko guztiak honako hau iradokitzen du: krisi kapitalistaren eta burgesiaren zein estatuko elite gidarien ofentsibaren aurrean, gutxienez hiru norabide politiko bereizten hasi ziren ziklo asanblearioari dagokionez. Horietako lehenengoak asanblada baztertzaren zein erregimena irekitzearen aldeko sektoreekin negoziatutako ordezkaritza-instituzio berriak eratzearen alde egiten zuen; hori litzateke, hain zuzen, alderdi antifrunkista erreformisten sektorea. Bigarrenak asanbladen espontaneotasuna gurtzen zuen, eta haren jatorrizko formak gizarte komunistaren eta langile kontraboterearen aurrekari gisa irudikatzen zituen. Hirugarren korronteak ziklo asanblearioaren indarraz baliatu nahi zuen estatuarekin hitzartze-bide bat proposatzeko, ahalbidetuko

lukeena erreformistek formulaturikoa baino bide aurreratuago bat izatea –plano taktiko hutsean–; posizio horretan kokatu zen ezker abertzalearen zatirik handiena. Bide horretatik, ezker abertzaleak urte luzez lortu zuen Trantsizio garaian azkenean lortu ziren emaitzak arbuiatzen zituen polo bakarra izaten jarraitzea, eta, estrategia armatuaren bidez, Estatua KAS alternatibaren puntu programatikoak negoziatzera eser zedin erdietsi zuen.

Orain arte zirriborratu diren gogoeta horiek, era berean, honako hau hausnartzeko bidea ematen dute: asanbladek, langileen mugimenduaren katalizatzaile gisa izan zuten garairik distiratsuenean ere, eta haien potentzial guztiarekin, ez zuten izan aldarrikapen ekonomizistarik gabeko nukleo gisa aldi berean loratzeko itxurarik. Modu sinplifikatuan bada ere, esan daiteke lehen deskribatutako hiru aukera politikoak ez zirela inoiz saiatu asanbladetan zuzenean parte hartzen asanblada horien kontzientziazio iraultzailea garatzeko; aitzitik, haiek ordezkatu nahi zituzten, negoziazio aurreratuago baten katalizatzaile gisa erabili edota, besterik gabe, sortu zireneko egoera berean utzi. Esaten genuen eta jarraian zehaztuko dugun bezala, banaketa hori ez da hutsezina historikoki, baina balio orokorrago bat du; izan ere, erabilgarria da iraganeko memoriaren kudeaketa kritikatzeko eta ezker aurrerakoiaren kontzeptuaren zentzua birdimentsionatzeko, gaur arte 78ko erregimenari egiten dion kritikari dagokionez.

MITO IRAULTZAILEA ETA ESPEKTATIBEN ORTZI MUGA


Aurreko argudioak behartzen gaitu, hasteko eta badaezpada, honako hau adierazi behar izatera: memoria kolektiboa itxuratzeari dagokionez, historikoki faltsua eta kaltegarria da Euskal Herriko trantsizio-aldi osoa “euskal iraultzaren” testuinguru gisa laburbiltzen duen deskripzioa, eta baita iraultza hori garaitutzat jotzea ere. Onartu behar badugu ere egon, egon zirela iraultza hori gertatu ahal izateko elementuak, beharrezkoa zai-gu, halaber, iraultza hori zergatik gertatu ez zen esplikatzen duten gabezien gainean hausnartzea. Horrek ez du eragozten matxinada-aldi oso bati merezi duen aitormen esplizitua eskaintzea. Izan ere, matxinada-aldi horrek langileen eta herritarren parte-hartzea eguneroko bizitzaren parte bihurtu zuen Euskal Herrian, gaur egunera arte, eta kultura militante bat sortu zuen, borrokan hezia, deliberatua eta antolaketari dagokionez oso eraginkorra. Gaur egungo militantzia horren guztia- ren oinordeko da.

Batzuetan, zenbait asanbladak esplizituki arbuiatu zuten haustura-zentzuan proposatutako politizazioa; beste batzuetan, ordea, 1976ko Gasteizko asanbladan, adibidez, ezker iraultzaileko taldeek posizio irmoa ezartzea lortu zuten, eta hori erabili zuten auzia berehalako aldarrikapen ekonomikotik haratago eramateko eta borrokak lantegietatik kanpo ere zabaltzeko. Gauza bera gertatu zen Nafarroan garrantzi handia izan zuen 1974ko abenduaren 11ko grebarekin

Edonola ere, balizko “euskal iraultza” horri buruzko gutxieneko hausnarketak kontzeptuaren definizioarekin eta euskal kasuarekiko aplikagarritasunarekin lotutako koordinatu minimoak lortzeko balio beharko liguke. Hortaz, jakin behar-ko genuke ea iraultza hori erregimen politiko edo-
ta soziala aldatzeko saiakera soil gisa ulertzen den, helburua lurraldean Estatuaren desintegrazioa gertatzea ote zen, ala benetako trantsizio bat egon ote zen, non langile klaseak boterea bereganatu zuen eta gizartearen mailako eraldaketa eragin zuen. Badirudi dagoeneko aipatu den Emmanuel Rodríguez egileak, beste autore batzuekin batera, “saiakeraren” ideiarekin alde egingo lukeela. Hala ere, berriz ere, formulazio zehaztugabe batekin egiten dugu topo ahalegin horien eduki praktikoei dagokienez; horrek, azken batean, baliogabetu egingo luke haien izaera iraultzailea, eta, norabide zehatzik gabe, azkenean lortutako demokrazia burgesa zabaltzeko ideiarekiko lotura eratuko litzateke.

Beraz, eta oso mingarria izan daitekeen arren, hobe da iraganean iraultzarik izan ez zela onartzea honako hauek maila berean jartzen dituen mitoa elikatzea baino, nahiko era zentzugabean jarri ere, gainera. Alde batetik, ezker iraultzaileko militanten lehen ahaleginak, azkenean ezker abertzalearekin hautsi zuten beste batzuen zeregin koherentea (LAIA-EZ eta LAIAK), eta langile asanbladak, auzoetako asanbladak eta, geroago, bizitokien ingurukoak (okupazio prozesuak eta hiri-komunen sorrera). Beste alde batetik, 1976ko abuztuan ETA-PMk zituen puntu programatikoak, udal huteskundeak deitzeko eta gero horietan parte hartzeko eskaeraren bitartez demokrazia areagotzeko ekimenak –udal instituzioak asanbladetan lortu ez zena lortzeko gai izango balira bezala– eta ekoizpen modu kapitalistaren alternatiba gisa gertatu zen kooperatibismoaren gorakada, zeina Mondragon Taldean gauzatu baitzen. Paradoxikoki, urte haietan talde horrek berak beste ekimen kooperatibista zintzoagoen ahalmena mugatu zuen, jatorrizko balioen eta korrante sozialisten barne-
pisua murriztu zituen, eta, azkenik, irabazietan eta nazioarteko merkataritzarekiko loturan oinarritutako bide baten alde egin zuen.

Aitzitik, asmo iraultzailea zuen norabide politikoa benetan agertu zen asanbladetan eta langileentzako beste instituzio batzuetan, hala nola, Errekaldeko Herri Unibertsitatean, eta asmo hori Frankoren heriotzak irekitako aukeraren berehalako ondorioa izan zen. Jendarteak desiratzen zuen amaiera zoriotsu hori gertatu zen arte, diktadu-



rak burgesia euskaltzale eta nazionalista txikiari eskubideak murrizten zizkion eta, horren eraginez, burgesia hori baztertuta zegoen kapital handien aurrean eta, oro har, askatasun zibilak etenda zituen. Frankismoaren pean askatasuna kapital handiaren askatasun esklusibo bihurtu zen heinean, proletariotzaren eta burgesia txiki euskaltzalearen arteko bateratze aldi bat hasi zen; izan ere, arerio zapaltzaile beraren aurka borrokatzearen kontzientzia zeukaten, bai eta, erregimenak torturatutako eta eraildako bakoitzarekin, oinaze eta sufrimendu kolektiboak ezaugarritutako nazio berekoak izatearen kontzientzia ere. Egile ugarik adierazi duten moduan, Euskal Herrian “batasun antifrankista askoz gehiago egituratzen zen errepresioaren aurkako borrokaren inguruan partekatutako proiektu politikoen inguruan baino”.

Frankismoaren pean askatasuna kapital handiaren askatasun esklusibo bihurtu zen heinean, proletariotzaren eta burgesia txiki euskaltzalearen arteko bateratze aldi bat hasi zen; izan ere, arerio zapaltzaile beraren aurka borrokatzearen kontzientzia zeukaten, bai eta, erregimenak torturatutako eta eraildako bakoitzarekin, oinaze eta sufrimendu kolektiboak ezaugarritutako nazio berekoak izatearen kontzientzia ere

***Euskara, 1936an matxinatu ziren
karlistek antzina modu naturalean
hitz egiten zutena, gogor jazarria egon
zen, ordea, diktaduran, eta horregatik
bihurtu zen zapalkuntza gainditzeko
hizkuntza eta, kasu batzuetan, iraultza
sozialista irudikatzeko nahitaezko
komunikazio elementua proletariotzaren
zati esanguratsuen artean, etorkinen
artean zein bertakoen artean***

Euskara, 1936an matxinatu ziren karlistek antzina modu naturalean hitz egiten zutena, gogor jazarria egon zen, ordea, diktaduran, eta horregatik bihurtu zen zapalkuntza gainditzeko hizkuntza eta, kasu batzuetan, iraultza sozialista irudikatzeko nahitaezko komunikazio elementua proletariotzaren zati esanguratsuen artean, etorkinen artean zein bertakoen artean. Bandera gorria arazorik gabe ibiltzen zen airean ikurrinarekin batera, Espainiako Estatu kapitalista diktatorialaren aurkako borrokaren ikur gisa harrotasunez goratua. 1976an LAIA-EZeko militanteek azaldu zutenez, etsai komun baten kariaz klase sozial desberdinen artean egondako bateratze-aldi hori desegiten hasi zen, klase mailan, behintzat, eta ez horrenbeste maila sinbolikoan. Hori gertatu zen askatasun zibilak, zuzenbidearen hedapena eta liberalizazio ekonomikoa presenteago egoten hasi zirenean, eta demokrazia burges baterantz bideratutako erregimen politiko berri bat egoteko aukera sendotu zenean (zazpi lurraldeetako hiruk autonomia juridikoa izango zuten, ikurrina ofiziala izango zen entitate berri horretako ikur gisa eta Bizkaia eta Gipuzkoari Kontzertu Ekonomikoa itzuliko zitzaien prozesu horren une goren gisan), horrek esan nahi baitzuen euskal kapitalista txikiek eta ertainek zabalik edukiko zutela joko-eremua.

Aurreko digresioa ez da erretorika hutsa. Oroimen kolektiboa oinordekotzan hartua eta partekatua den kulturatzat hartzen badugu, edo gauza bera dena, *Erfahrung* edo esperientzia kolektiborako espazio gisa, “euskal iraultzaren” mito horri aurre egin behar diogu. Izan ere, ziklo asanblearioari buruz hitz egitean, mito horrek, aipatutako hiru espazio haietako baten oinordeko gisa, garai hartako autoantolaketa indarra erabili nahi du 78ko erregimenaren esangurarik gabeko zabaltze bat bultzatuko duen oroimena elikatzeko. Kasu honetan, historiaren errepresentazio berrantolatu horren fabrikazioa objektu maitatuak eragindako doluaren balizko gainditzean oinarritzen da: “euskal iraultza” garaitua. Haren itxurazko porrotak, jakina, garai hartako instrumentalizazio-baldintza-tzailetatik kanpo (eta ez soilik PCEren eta PSOEren traizioetatik kanpo), itxiera bat eta helduleku kontzeptual indartsu bat ahalbidetzen ditu, eta hortik abiatuta, nostalgia-egoera artifizial bat lor daiteke, lehen deskribatu ditugun planteamendu ez erabat iraultzaileen bitartez, edo, kasurik txarrenean, 78ko erregimena gainditzea proposa daiteke energia libidinalak itxaropen-printzipioetatik kanpo dauden ideal berrietara lekualdatzeko, eta ekoizpen kapitalistaren erregimena arduraz onartzeko.

***Etsai komun baten
kariaz klase sozial
desberdinen artean
egondako bateratze-aldi
hori desegiten hasi zen,
klase mailan, behintzat,
eta ez horrenbeste
maila sinbolikoan. Hori
gertatu zen askatasun
zibilak, zuzenbidearen
hedapena eta liberalizazio
ekonomikoa presenteago
egoten hasi zirenean,
eta demokrazia burges
baterantz bideratutako
erregimen politiko berri
bat egoteko aukera
sendotu zenean***

Horrela, “euskal iraultza” horren alferrik galdutako iragana, inoiz idatzi ez denaren irakurketa legitimo gisa, irudi dialektiko baten gisa, planteatzen da. Baina irudi dialektiko horren helburua ez da izango orainarekin duen konfrontazioan inoiz fruiturik eman ez duen iragan iraultzailearen arduraz libratzea, baizik eta, haustura lortzearen itxura eginez, izandako trantsizioarekin azaleratutako aldi historiko berean lotura kritiko garrantzirik gabeko bat eskaintzea. Beste modu batera esanda, iraganean izandako balizko “euskal iraultza” hori esperientzia erreformistarako espazio gisa eratzen bada, hau da, “78ko erregimenaren zabaltze” gisa eratzuz gero, etorkizunean “hausturaren” aukera teknikoki posible bihurtzen da. Nahikoa izango da gehiengo parlamentarioak handitzea, gobernura iristea, “gehiengoarentzat gobernatzea”, eta horrela, xirmi-xarmaz, lortuko litzateke, azkenik, amesturiko “demokrazia erradikala”.

Historiaren errepresentazio berrantolatu baten fabrikazioa objektu maitatuak eragindako doluaren balizko gainditzean oinarritzen da: “euskal iraultza” garaitua. Haren itxurazko porrotak, jakina, garai hartako instrumentalizazio-baldintzatzailetatik kanpo (eta ez soilik PCEn eta PSOEn traizioetatik kanpo), itxiera bat eta helduleku kontzeptual indartsu bat ahalbidetzen ditu, eta hortik abiatuta, nostalgia-egoera artifizial bat lor daiteke, lehen deskribatu ditugun planteamendu ez erabat iraultzaileen bitartez, edo, kasurik txarrenean, 78ko Erregimena gainditzea proposa daiteke energia libidinalak itxaropen-printzipioetatik kanpo dauden ideal berrietara lekualdatzeko

Esperientzia-espazio baten formulaziorako sintesi hori, zeinak nahasten dituen dolua, garai hartako irakinaldi kontrakulturaren nostalgia eta klase-borroka banaketaren aldeko bataila huts gisa ulertzen duen obrerismoa, neurri handi batean baliatu egiten da langile-oroimen baten transmisio ezaz eta langileen sozializaziorako espazioen aldaketaz, baita borroka iraultzaileari begirako identitate kolektibo bat ez erreproduzitu izanaz ere. Txiki eta Otaegiren kasuan ikusi den bezala, haien erailketaren 50. urteurrenean, militante iraultzaileak aise eraldatuak izan dira, eta “estatus politiko berriaren”, “euskal autonomia aurreratuaren” eta “jendearen bizi-baldintzak hobetzearen” defendatzaile bihurtu dituzte. Lehen “*independentzia eta sozialismoa*” zeuden tokian, orain “*autonomia eta kooperatibismoa*” daude.

Ziurrenik, iraganaren erabilera interesatu hori 1970eko hamarkadan sortutako matxinada-egoeraren zuzendaritza politikoaren nolabaiteko gaitasun faltaz ere baliatzen da. Izan ere, estadio zehatz horrek geografikoki eta kuantitatiboki indarra erakutsi zuen, eta “denbora historikoa eteteko” esperientzia aberatsa izan zen. Baina, era berean, loturarik gabeko norabideak finkatu zituen, inkoherenteak, eta estrategiaren aldetik hutsalak, eta, azkenik, iraultza ahalegin oro bertan behera utzi zuen.

Gaur egun, Frantzian, Alemanian eta Italian ez bezala, mota askotako aktibismoan sakabanatuta

dagoen espazio politikoa bada ere, goian aipatutako azken elementu horrek arreta ipinarazten digu ziklo asanblearioaren hasieran parte hartu zuen beste sektore baten oroimen-formulazioan. Bereziki, autonomiaren inguruko sekzioei buruz zerbait esatera bultzatzen gaitu. Izan ere, autonomiak izan dira gartsuago, baina agian horregatik, zintzotasun handiagoz, gaur egun arte esperientzia asanblearioa eta hirurogeita hamarreko hamarkadako matxinada-aldia proiektu horizontalista bat gauzatzeko aukera gisa imajinatu dituztenak, klase-banaketak gainditzeko, denbora historiko linealaren *contiuuma* apurtzeko eta militantzia berri bat sortzeko.

Haien “iraultza molekularren” ideala soilik Kapitalaren diktaduratik ihes egiteko ahalegin eraginkor baten bidez lortu zuten. Horren ondorioz, *in nuce* bereganatu dute hondamenaren arrazoia alderdi politikoek (alderdi erreformistekin edota talde sektarioekin baino lotzen ez dituztenak) jokatu zuten rola izan zela, eta alderdi horiek masa proletarioen matxinadarako ekimen espontaneoak apurtzeko izan zuten interesa. Hain zuzen ere, alderdia forma, zeinaren paper iraultzailea nabarmen mugatua izan baitzen bere zatiketengatik, klandestinitateagatik eta asanbladaren boterearen aurrean izan zuen epelkeriagatik, putzu beltzera botata, iraultza prefiguratibo txiki haien porrota ez da euren arazoen eta posizio politiko zehatzen gabeziaren ondorio gisa ikusten,

baizik eta ofentsiba neoliberal, autoritario eta sekuristaren ondorio. Eraso hori gertatu izan ez balitz, eta alderdi politikorik existitu izan ez balitz, antza, asanbladek, haien pentsaera eta erabaki heterogeneoak gorabehera, komunismoa gauzatuko zuten.

BERTOLDOREN ARBOLA. GALERA ETA ABSENTZIA

Edozein begirale politikorentzat begi-bistakoa da, besteak beste, Sumar, EH Bildu, Esquerra eta Podemos alderdiek behin eta berriz adierazi dutela, beti ere hauteskunde-ziklo berrien testuinguruan, 78ko erregimena gainditzeko itxaropena ustezko porrot iraultzaile hura berreskuratzeko modu gisa –betiere aipatu ditugun termino erreformistetan kokatua–. Are lotsagarriagoa da itxaropen-mito horren erabilera egin duten beste alderdi politiko batzuen kasua; adibidez, PCEk, Ezker Batuak, UGTk eta PSOEko zenbait korrontek, Trantsizio garaian arazo handirik gabe aurreko erregimeneko eliteekin ituna egitea onartu bazuten ere, erreparo handiegirik gabe.

Azken horientzat, hildako edota torturatutako militante iraultzaileen itzalak babestu egin behar ditu 1978ko Konstituzioak azkenean izandako emaitzak. Trantsizioko pertsona handien hilobian leku bat eskaintzekotan, ohore hori jasotzeko arrazoia izan behar da demokrazia ahalbidetu izan zute-la; hau da, “Espainia aske bat” eraiki zutela. Baina militante haietako batek ere ez zuen termino abstraktu horietan hitz egiten, eta gainera, ez zuen “askatasuna” kontzeptua demokrazia burgesarekin identifikatzen.

Bestalde, lehenengoentzat, eroritako haiek lortu ziren emaitzen gutxieneko erreformarako bidea ematen dute. 2015ean, ezker konfederala deiturikoak, M15eko ziklo asanblearioagatik eta *Hegemonia eta estrategia sozialista* obrako “iraultza demokratikoaren” ideia populisten gorakadarengatik horditua oraindik, bete-betean bereganatu zuen “gertagarritasunaren” ideia “zatiketa sozialaren izaera eratzailean”. Ordu hartan Podemos alderdiko idazkari zen Iñigo Errejonen hitzetan, 78ko erregimena gainditzeak “ez du esan nahi dagoena irauli egin behar denik, baizik eta eraldaketa politiko eta sozialerako prozesu bat eraiki behar dela. Horrek guretzat esan nahi du harro egoteko moduko belaunaldien legatu batzuk erreskatatzea, hala nola zerbitzu publikoak blindatzea edota mugikortasun sozialaren aukera bermatzea”. Urte haietan Podemos alderdiko liderra zen Pablo Iglesiasek nahiko modu adierazgarrian adierazi zuen El Pais egunkarian argitaratutako eta *Una nueva Transición* bere liburuan jasota dagoen “Zer da aldaketa?” izenburuko artikulu batean ho-

Txiki eta Otaegiren kasuan ikusi den bezala, haien erailketaren 50. urteurrenean, militante iraultzaileak aise eraldatuak izan dira, eta “estatus politiko berriaren”, “euskal autonomia aurreratuaren” eta “jendearen bizi-baldintzak hobetzearen” defendatzaile bihurtu dituzte

nako ideia hau: 78ko alderdi-bitasunaren aurrean, zeinak kapital handiak babesten dituen, aldaketa planteatu behar zen; hau da, enpresa txikien eta er-tainen alde egin, eta “Espainian lanpostuak sortzen dituenaren kontra egiteari utzi”. Aurreko urtearen amaieran, Iglesiasek, ofizialki Podemos alderdiko idazkari nagusi hautatu berritan, 78ko giltzarrapoa zabaltzeaz hitz egiten zuen, “ekonomia demokratizatzeko”, fiskalitatea hobetzeko, kooperatibak sortzeko eta, azken batean, Danimarka bezalako herrialde aberatsago bat izateko.

Horrela, ongizate-estatua mantentzeko edota hedatzeko eskaera haiek eta euskal-kooperatiben ereduaren aldeko nolabaiteko apustua sendotu egin ziren, gaur egunera arte, “herri” subjektibotasuna eratzeko elementu gisa (“telebistak politikoki sozializatutako herria,” Iglesiasen esanetan), eta Trantsizioaren garaiko porrot iraultzaile demokratikoaren irudi distorsionatuarekin lotzen ziren, itxura hutsa baina izugarri eraginkorra zen forma batean; hortaz, kontraesanik gabeko antagonismo-aldi gisa planteatua. Gainera, nahikoa ziurtasunez esan liteke, sigla aldakorrak gorabehera, elementu horrek funtzionatzen jarraitzen duela Más Paisen, Sumarren, eta ziur aski erretorika gartsuago batekin bada ere, baita Podemosen ere.

***Ezker aurrerakoia deiturikoaren
bloke horrek guztiak Bertoldok
bezala egiten du: bere heriotza
onartzen du, helburu iraultzailearen
porrota, baina baldintza bat jartzen
du: berak aukeratuko du bortxaz
zein zuhaitzetatik urkatuko duten.
Honez gero, soka lepoan lotuta
dauka, pisu hila da, baina zuhaitz
horren aukeraketa luzatzen du betiko***



***Azken finean, ulertzen
badugu porrota mugimendu
iraultzailearena izan zela,
eta ez iraultzarena berarena,
aukera izango dugu egungo
garaian eta "belaunaldi garaitu
guztien izenean" edota haien
oroimenez indar askatzaile
hori berreskuratzeke***

Zalantza handirik gabe, EH Bilduk ere onartu du 1970eko hamarkadako irudikapen partikular hori Euskal Herrirako, eta bereganatu du Trantsizioan alferrik galdutako emaitza iraultzaileak aplikatzea benetan dela “eskubide nazionalak eta sozialak irabazteko bidean aurrera egitea”. 2025ean, Otegik, ezker abertzaleko masei gustatuko litzaiekeen baino elokuentzia handiagoz, etengabe aipatzen zuen espektro politiko horren guztiaren zerumugan begiztatzen den aukera: “78ko hipotekak altxatzen ditugu ala, benetan, hau ez da sostengatuko”. Zer da sostengatu nahi den *hau*? Hain zuzen ere, ezker aurrerakoia deiturikoaren bloke horrek guztiak Bertoldok bezala egiten du: bere heriotza onartzen du,

helburu iraultzailearen porrota, baina baldintza bat jartzen du: berak aukeratuko du bortxaz zein zuhaitzetatik urkatuko duten. Honez gero, soka lepoan lotuta dauka, pisu hila da, baina zuhaitz horren aukeraketa luzatzen du betiko.

78ko erregimenari buruzko posizio horren aurrean, zeinak mito iraultzailea elikatzen baitu orduko eta egungo erreformismoa bertan proiektatzeko, damua nabarmenduko duen irakurketa bat planteatu behar dugu: gertatu ez zen iraultza bategatik damua eta egonezina. Iraultza bat, zeina galdu zen izan ez zelako, eta iraganean gauzatu izan ezin horrek berrazalarazten ditu, ez horrenbeste hura sortzeko egungo baldintzak, ezpada orduko traidoreak eta haien oinordekoak ezagutzeko aukerak, eta garrantzitsuena, haren haustura-promesa gordetzen uzten du, 78ko erregimenarekin benetan haustura politikoa gauzatzeko aukera.

Beraz, pentsatzen badugu iraultza gauzatu zela, porrotaren arrazoiak, batez ere, kanpoko elementuetan bilatuko ditugu. Aldiz, iraultza errealitatean inoiz ez zela gauzatu gogoetatuz gero, ez-gauzatze horren gaineko ondorio politikoak atera ahal izango ditugu, eta “erreakzio prebentiboaren” ikuspegi zehatza lotu ahal izango dugu 1974an (edo 1970ean) hasitako matxinada-zikloa gidatzeko berariazko zuzendaritza politiko baten faltarekin. Azken finean, ulertzen badugu porrota mugimendu iraultzailearena izan zela, eta ez iraultzarena berarena, aukera izango dugu egungo garaian eta “belaunaldi garaitu guztien izenean” edota haien oroimenez indar askatzaile hori berreskuratzeke. Borrokan eraikitako memoria. ●

ONSTITUCION.

Un voto
vale más
que mil gritos.

El deber es votar. Vota libremente.

6 de diciembre
Referéndum Nacional.



España
decide su futuro

TRANTSIZIOAREN MITOTIK
HARATAGO:

PORTUGAL, GREZIA ETA ESPAINIA

DIKTADUREN
AMAIERAREN AURREAN

Testua — **Irati Z. eta Zoihartze O.**

SARRERA

Europako hegoaldean hiru diktadura ezberdinen gainbehera gertatu zen ia aldi berean 1970eko hamarkadan: Portugalgo *Estado Novo*arena, Greziako Koronelena eta frankismoarena Espainian. Prozesu horiek, “demokraziarako trantsizio” gisa ezagutu direnak, erreferente internazional bilakatu ziren narratiba arrakastatsu baten pean. Herrialde bakoitzean aldaketaren formak eta erritmoek izandako desberdintasunetatik haratago, hiruetan antzeko emaitza izan zuten azken buruan; Mendebaldeko Europako marko politiko eta ekonomiko kapitalistan integratzea.

Egin-eginean ere, “trantsizio” kontzeptua bera problematizatu beharko genuke artikulua honekin hasteko. Izan ere, “trantsizioa” bide lineal gisa ulertzen da askotan: gizarteek egoera “atzerakoi” batetik beste “moderno” eta “demokratiko” batera egingo luketena. Ikuspegi hori, ordea, diskurtso hegemoniko gisa finkatutako interpretazio baten emaitza da. Etiketa horren pean, askotan neutralizatu dira botere-egiturekiko hausturarik ekarri ez zuten prozesuak. Hau da, egiazki kapitalismoaren funtsezko gizarte-harremanen jarraipena ziurtatu zuten egokitzapen eta berritxuratzeko prozesuak. Ez hori bakarrik, aurreko erregimenen funtsezko ezaugarriek biziraun zuten prozesuak ere bai, hala nola errepresio-aparatuen jarraipenak eta biolentzia instituzionalak.

Ikuspegi horren adibide litzateke “trantsizio demokratiko” deritzon narratiba, batez ere XX. mende amaieran hegemoniko bilakatu zena, Samuel P. Huntingtonen *La tercera ola de democratización* lanen eskutik, besteak beste. Marko horretan, de-

makrazia liberalak helmuga desiragarri ez ezik, halabeharrezko patu unibertsal gisa ulertzen dira. Diskurtso horren bitartez, trantsizioak eredu arrakastatsu gisa interpretatu ziren, eta gizartearen bilakaera “normala” mendebaldeko kapitalismoan integratutako makrazia parlamentarioetan amaitzea zelako ideia indartu zen.

Azalduko ditugun kasuetako bakoitzak, ordea, garapen eta ezaugarri propioak izan zituzten, nahiz eta guztiek antzeko eszenatokira eramane zuten. Portugalen, mobilizazio popularrak gizarte-eraldaketarako aukera zabaldu zuen, baina azkenean instituzionalizatzen amaitu zen. Espainian, oster, adostasunaren adibide gisa aurkeztu zena eliteen arteko paktu erreformista izan zen. Grezian, Koronelen erorialdiak berehala ekarri zuen NATOren eta elite ekonomikoen babespean parlamentua ezartzea.

Hiru bide horien arteko konbergentzia ez dugu bilakaera natural gisa ulertzen, baizik eta marko historiko beraren adierazpen gisa: krisi garaian kapitalismo europarra berregiteko beharra eta Europa hegoaldea Mendebaldeko egituretan integratzekoa, hain zuzen ere. Horregatik, hiru kasuok elkarrekin aztertzeak desberdintasunak eta loturak identifikatzea ahalbidetzen du. Artikulu honek Espainiako, Portugalgo eta Greziako trantsizioen azalpen eta hurbilketa konparatua proposatzen du. Marko berean kokatzean, beren arteko desberdintasunak eta partekatutako zuten amaiera komuna ikustarazten du.

1970eko hamarkadan, Europako hegoaldean hiru diktadura ezberdinen gainbehera gertatu zen ia aldi berean: Portugalgo Estado Novoarena, Greziako Koronelena eta frankismoarena Espainian

Portugalgo, Espainiako eta Greziako diktaduren arteko konbergentzia ez dugu bilakaera natural gisa ulertzen, baizik eta marko historiko beraren adierazpen gisa: krisi garaian kapitalismo europarra berregiteko beharra eta Europa hegoaldea Mendebaldeko egituretan integratzekoa, hain zuzen ere

TESTUINGURUA

Portugalgo, Greziako eta Espainiako diktadurak erortzea ezin dugu unean uneko erabaki politikoen emaitza gisa ulertu. Hau da, marko zabalago baten parte izan zen: 70eko hamarkadan munduko kapitalismoak bizi zuen krisiaren eta mendebaldeko

blokearen berrosaketaren parte, hain zuzen ere. Erregimen horiek, besteak beste, kontrol errepre-siboari, menpeko garapen ekonomikoko eredu eta mendebaldeko blokeari erabilgarri izateari esker iraun zuten. Haatik, nola-halako oreka hori 1970eko hamarkadan krisian sartu zenean –petrolioaren krisia, eredu desarrollista agortzea eta gatazka soziala haztea–, ordura arte diktaduren egonkortasuna bermatu zuten oinarri material eta politikoak ere desorekatu ziren.

Arlo ekonomikoan, 1973ko petrolioaren krisiak aurretiko tentsio ekonomikoak agudotu zituen. *Estado Novo*ak, frankismoak eta Koronelen diktadurak modernizazio mugatua gauzatu zuten, atzerriko inbertsioetan, soldata baxuetan eta diziplinamendu sozialean oinarrituta. Desarrollismo horrek nolabaiteko industria eta hiri-modernizazioa ahalbideratu zuen, nazioarteko kapitalaren menpeko egitura bat finkatzeari esker. 70eko hamarkadan, ordea, eredu hori agortuta zegoela agerian geratu zen krisiarekin: kontrolik gabeko inflazioa, langabezia gero eta handiagoa, zorpetzea eta desberdintasuna handitzea nabarmendu ziren. Poulantzas soziologoak azpimarratu zuen bezala, diktadura horien gainbehera ezin da modu isolatuan ulertu, Europako periferiaren menpeko kapitalismoaren krisiaren adierazgarri baitziren. Forma autoritarioak beren mugara iritsi ziren, eta alor sozialean ere gatazkei eustea sostengaezina zen.



Horri nazioarteko testuingurua gehitu behar zaio. Gerra Hotzaren testuinguruan, Portugal, Espainia eta Grezia funtsezkoak ziren Meditterraneo eta Atlantikoa kontrolatzeko estrategian. Ipar Amerikako inperialismoak eta Europako potentziek ezinbestekotzat zuten NATOren “hegoaldeko hegala” ziurtatzea. Horregatik, Estatu Batuek eta Europa mendebaldeak aliatu baliagarri gisa erabili zituzten herrialdeok hamarkadetan, erregimen diktatorialak izan arren. Portugal NATOko kide fundatzaile zen 1949tik, Grezia 1952an sartu zen eta Espainiak 1953an Washingtonekin itun militarrek sinatu zituen, besteak beste. Baina krisi ekonomikoarekin eta gatazken areagotzearekin, aipatutako baliagarritasuna arazo bilakatzen hasi zen. Mendebaldeak erregimen egonkorragoen eta fidagarriagoen beharra zuen, demokrazia libera-lena, Europako Ekonomia Erkidegoan integratuko zirenak eta bloke atlantikoaren kohesioa indartuko zutenak. Gauzak horrela, diktaduren amaiera, bar-ne-dinamikek ez ezik, krisian zegoen kapitalis-moaren hegemonia berrosatzeko helburuek ere baldintzatu zuten.

Faktore erabakigarri bat, ordea, diktaduren azken urteetan metatutako presio soziala izan zen. Portugalen kasuan, Afrikako gerra kolonialak erregimena agortu, armada hautsi eta herri-mobilizazioa handitu zuen. Europako hegoaldean erregimenen egonkortasuna errotik zalantzan jarri zuen mobilizazio ziklo bat hedatu zen: langileen greba handiek, ikasleen matxinadek, auzo-mugimenduek, euskal gatazkak eta adierazpen kultural berriek erregimenen mugak gainditu zituzten. Mobilizazio ziklo hori ez zen, baina, ezerezetik sortu: Espainian, borroka antifrankistaren aurretiko ibilbidean oinarritzen zen, eta, Portugalen, gerra kolonial luzearen higadurak lehenagotik ireki zituen arrakalak. Kasu guztietan, 70eko hamarkadan aldatu zena borroka horien zabaltasuna eta intentsitatea izan zen. Gauzak horrela, ikusitako testuinguru komun horien gainean ibilbide ezberdinak garatu ziren, eta kome-ni da horiek bereizita aztertzea konbergentziei heldu aurretik.

PORTUGAL: PROZESU IRAULTZAILETIK EGONKORTZE POLITIKORA

Estado Novoa, 1933an Salazarrek ezarri eta os-tera Caetanok luzatutakoa, Europako diktadura iraunkorrenetako bat izan zen. Laburki, autoritaris-mo politikoa, lan korporatibismoan, zentsuran eta polizia politikoa (PIDE) errepresioan oinarritu zen, eliza katolikoaren babesarekin. Arlo ekonomi-koan, esan daiteke posizio periferiko eta atzeratua


Diktaduren amaiera baldintzatu zuen faktore erabakigarri bat, ordea, diktaduren azken urteetan metatutako presio soziala izan zen

mantendu zuela Mendebaldeko Europarekin alde-ratuta: urri modernizatutako nekazaritza, indus-trializazio mugatua eta ihesbide sozial gisa aritu zen emigrazio handia. Diktadura horren ezaugarri bereizgarri bat inperio kolonialaren defentsa izan zen, 1961az geroztik gerra irekiak izan baitzituen Afrikan. Europako herrialdeetan deskolonizazio prozesuak gertatzen ari ziren bitartean, Portugal gero eta isolatuago geratu zen, baliabideak agor-tu eta erregimenaren legitimitatea murriztu zuen proiektu inperialean harrapatuta. Hamarkadetan diktadurari eutsi zioten oinarriak, 70eko hamar-kadako krisiaren sorburu ere izan ziren aldi berean.

Aipaturiko gerra koloniala izan zen arrazoi era-bakigarriena: 1961ean hasi eta hamarkada bat bai-no gehiago iraun zuen, eta Angolan, Mozambiken eta Ginea Bissaun egin zen. Inperioa mantentze-ko, Estatuaren aurrekontuaren %40 inguru gerra-ra bideratu, milaka errekluta gazte mobilizatu eta ahalegin militar izugarria egin zuen erregimenak. Gerra-esfortzu horrek frustrazio gero eta handia-go zabaldu zuen herritarren artean, baita armada barruan ere –Afrikan borrokatzen ziren ofizial gaz-teen artean–, eta oposizioa geroz eta irekiagoa zen.

Horren ondorioz, erregimena isolatua zegoen nazioarteko markoan. Prozesu deskolonialak ger-tatzen ari ziren testuinguruan, Portugalek gerrak egiten jarraitzen zuen. Estatu Batuak eta Europako potentziak, Meditterraneo eta NATOren “hegoaldeko hegala” egonkortzeko interesa zutenak, iden-tifikatzen hasi ziren *Estado Novoren* jarraipena tra-ba bat izan zitekeela beren helburuak erdiesteko; hots, Portugal Mendebaldeko Europan integratzeko eta Afrikako egoera kontrolatzeko helburuak, hain zuzen ere.

Arlo ekonomikoan, esan dugu Portugalek Euro-paren ekonomia periferikoa izaten jarraitzen zuela. Herrialdea nekazaritza atzeratu batean murgilduta zegoen: hegoaldean latifundio handiak eta iparral-dean ustiategi txikiak, biak ala biak produktibita-te-maila txikiekin, nekazarien populazioari eusteko



***Estatu Batuak eta Europako
potentziak, Mediterranea
eta NATOren “hegoaldeko
hegala” egonkortzeko interesa
zutenak, identifikatzen
hasi ziren Estado Novoren
jarraipena traba bat
izan zitekeela beren
helburuak erdiesteko***

gai ez zirenak. Industriari dagokionez, Lisboa eta Porton kontzentratzen zen, mugatua zen eta atzerriko kapitalaren mendekoa. Caetanoren 60ko hamarkadako erreformek herrialdea partzialki ireki zuten kanpo-inbertsiora eta europar merkataritzara, baina mendeko izaera aldatu gabe. Modernizazioa partziala eta irregularra izan zen: hirietan industria-sektore dinamikoagoa sortu zen, baina pobrezian zeuden landa eremu zabalak zeuden oraindik. Emigrazio masiboa tentsio horien aterabide izan zen askorentzat. Testuinguruan aipaturiko 1973ko nazioarteko krisiak ahulezia horiek handitu zituen: inflazioaren areagotu, inportazioak garestitu, eta ekonomiaren hazkundera geldiarazi zen.

1968tik Caetanok egindako erreformek –nola baiteko liberalizazio ekonomiko bat eta irekiera politikoko narratiba– ez zuten egoera aldatu. Erregimenak eutsi egin zion bere izaera autoritarioari: PIDEn errepresioak bere horretan jarraitu zuen eta zentsurak, adibidez, edozein oposizio forma mugatzen jarraitu zuen. Itxurazko modernizazio hori, hortaz, ez zen nahikoa izan erregimenaren gainbehera geldiarazteko. Kontrara, zatiketak sortu zituen boterearen blokearen baitan: erregimena bere horretan mantentzea defendatzen zutenen eta erreforma mugatu batzuk defendatzen zituztenen artean. Esaterako, armada aktore garrantzitsua izan zen: gerran inplikaturako hainbat sektorek erakunde klandestino bat sortu zuten; Indar Armatuak Mugimendua (MFA).

Era horretan, 1974ko apirilaren 25eko egunsentian, MFAk, batez ere kapitainek eta mendeko ofizial gazteek, altxatze militarra abiarazi zuten Caetanoren gobernua eraisteko asmoz. Plana mugatua zen; botere-kupulan aldaketa kontrolatua egin nahi zuten, sistemaren oinarriak bihurtu gabe. Hala ere, hasiera batean operazio militar bat izan zena, irismen handiko “iraultza soziala” bilakatu zen ordu gutxian. Manuel Loff historialariak azpimarratzen duen bezala, MFAREN arrakasta Portugalek 60ko hamarkadan bizi izandako eraldaketa sozialaren prozesu zabalago baten esparruan ulertzen da.

Operazio militar gisa hasi zen hori, beraz, haustura politiko eta sozial bilakatu zen. Milaka pertsona batu ziren Lisboako eta beste hiri batzuetako kaleetan: PIDEn egoitzei eraso egin zieten, preso politikoak askatu, irrati eta egunkariak okupatu, eta gerraren berehalako amaiera eskatu zuten, besteak beste. Krabelinak fusiletan jartzearen keinuak eman zion izena Krabelinen Iraultzari, eta egun hartako irudi ikoniko bilakatu zen. Apirilaren 25eko ekintzek erakutsi zuten prozesua ez zela eliteen aldaketa soilera mugatu; hastapeneta-

***Krabelinen Iraultzan,
masak mobilizatzeak
haustura iraultzailearen
aukera ireki
zuen Portugalen,
Mendebaldeko Europaren
testuinguru betean***

tik, herri-mobilizazioak MFAREN hasierako planak gainditu zituen. Poulantzasek ohartarazi zuen egun hori estatu-kolpe gisa interpretatzeak masen berehalako esku-hartzea kontuan ez hartzea dela. Izan ere, masak mobilizatzeak haustura iraultzailearen aukera ireki zuen Portugalen, Mendebaldeko Europaren testuinguru betean.

Apirilaren 25eko gertakariak *Estado Novo*aren behin betiko erorketa ekarri zuten. Caetano errenditu, boterea Spínola jeneralari eman, eta ia mende erdiko diktadurari amaiera eman zion. Hala ere, hasieran kupularen errelebo kontrolatu bat zirudienak botere-hutsune bat ireki zuen. Spinolari boterea emateak trantsizio moderatu batera bideratu nahi zuen prozesua, baina herri mobilizazioaren indarrak eragotzi egin zuen “aldaketa” goitik eginiko operazio soil batera mugatzea. Egun horretatik bertatik, hurrengo urteetan garatuko zen gatazka nagusia ireki zen: ea Portugalek demokrazia liberal moderatu baterantz aurrera egingo zuen ala gizartea eraldatzeko bide erradikalago bat irekiko zen. Tentsio horrek markatu zuen Prozesu Iraultzailearen (PREC) hasiera.

Diktaduraren erorketa eta gero, Salbamendurako Batzar Nazionala (JSN) sortu zen, Spínola buru zuela, prozesu moderatua bideratzea bilatzen zuena. Aurreko erregimenaren amaiera sinbolizatu zuten berehalako neurri batzuk onartu ziren: preso politikoaren amnistia, alderdi eta sindikatuen legalizazioa, eta PIDEn desagitea, adibidez. Erabaki horiek, baina, diktadurako hamarkadetan metaturiko presio sozialaren eta apirileko gertakarien harira herritarren berehalako eskakizunei erantzuten zieten.

Hortaz, hasieratik egin zion ihes prozesuak kupa militarren kontrolari. Herri-mobilizazioa ez zen mugatu erregimenaren erorketa lortu eta ospatzera: lantegi, kuartel eta auzoetan batzordeak osatzen hasi ziren, eskubideak, lan hobekuntzak, ekoizpenaren kontrola eta jabetza pribatua bera zalantzan jartzen zituztenak. Parte-hartze politiko horrek ez zuen aurrekaririk Portugalgo historian; ezaugarri iraultzaileak zituen argi eta garbi. PRE-Caren hasierak, hortaz, boterearen eta errealtatearen arteko dikotomia utzi zuen agerian: batetik, Spínolaren eta MFaren behin-behineko erakundeak zeuden; eta bestetik, erabateko eraldaketa eskatzen zuten antolakunde popularren sarea. Haien arteko tentsioa izango zen, bada, prozesuaren dinamika ezaugarritu zuena.

1974-1975 urteetan zehar, apirilaren 25ean irekitako prozesua areagotu zen, izaera iraultzaile argia izatera iritsi arte. Diktadura erotzeak mobilizazio-ziklo handi bat ireki zuen: batetik, lantegietan, hobekuntzak eskatzeaz gain, produkzioaren gaine-ko kontrola eskatzen ere hasi ziren langileak. Lantegi askotan, asanbladetan aukeraturiko batzordeak sortu ziren, praktikan langile-boterearen hazia zirena. Landa-gunean, Alentejon bereziki, nekazari-ek lur-okupazio handiak egin zituzten, eta, ondorioz, Europa mendebaldean aitzindari izan zen nekazaritza-erreforma bat gertatu zen: milaka latifundio-hektarea hartu, eta kolektiboki kudeatutako kooperatibetan berrantolatu ziren, adibidez. Estatuak, bere aldetik, nazionalizazioen politika bultzatu zuen; bankuak, aseguruak, energia, garraioa eta komunikazioak barne hartzen zituen.

Ondorioz, botere dualtasuna islatzen zen berriro ere: batetik, MFA eta JSNko batzordea buru zituen aparatu instituzionala; bestetik, biztanleriaren sektore zabalen ekimenaren sarea. Tentsio horrek definituko zuen, hain zuzen ere, PRECaren garapena, eta prozesuan ziurgabetasuna nagusitu eta oztopoak sortzen hasi ziren. Esaterako, MFaren baitan zatiketa sakonak egon ziren kontserbadore-agoen –prozesu moderatu eta mugatua nahi zuten– eta “apirileko kapitainen” artean –eraldaketetan sakondu nahi zuten–. Tentsio horiek konfrontazio irekiak sortu zituzten, 1974ko kolpe saiakera kasu.

Polarizazioak gizartea eta osatzen ari zen sistema politikoa ere zeharkatu zituen. Portugalgo Alderdi Komunista (PCP), Alvaro Cunhalek zuzendua, ezkerreko indar antolatu nagusi gisa aurkeztu zen. Hala ere, estrategia ez zen berehalako iraultza sozialistarena, baizik eta bi etapako prozesu batena: lehenik, izaera antifaxista eta nazionaleko “demokrazia aurreratua” sendotzea, eta, ondoren,

Prozesu Iraultzailearen hasieratik, botere dualtasuna islatzen zen: batetik, MFA eta JSNko batzordea buru zituen aparatu instituzionala zegoen; eta, bestetik, biztanleriaren sektore zabalen ekimenaren sarea

sozialismorako trantsizioa planteatzea. Orientazio horren ondorioz, MFAko sektoreekin aliantza egitearen eta prozesua bide instituzionalen barruan mantentzearen alde egin zuen, eta, hori dela eta, tentsioak egon ziren langile antolakuntzarekin. Bestalde, Mário Soaresen Alderdi Sozialista (PS) moderazioaren erreferente agertu zen, sozialdemokrazia europarrak eta Estatu Batuek aktiboki babestuta.

Gainera, testuinguru internazionalari dago-kionez, mendebaldeko potentziak ez zeuden prest marko kapitalistatik eta NATOtik aldenduko zen herrialde bat onartzeko. Horrela, sektore iraultzaileenen isolamenduarekin eta moderatuen babes irekiarekin konbinatu zen presio diplomatiko eta ekonomikoa, bloke iraultzailea ahultzeko asmoz, eta blokeo politikoa areagotzea izan zen ondorioa. Besteak beste, MFAko zatiketek, alderdien arteko konfrontazioak, langile antolakuntzaren presioak eta nazioartekoak ezegonkortasun-dinamika elikatu zuten. 1975. urtearen amaierarako, prozesua krisialdiak eta desgasteak ezaugarritutako bidegurutze batean zegoen.

Tentsio horien guztien inflexio puntua 1975eko azaroaren 25ean iritsi zen: ezkerreko sektore militarren matxinada saiakera zapaldu zuten MFAko zuzendaritza moderatuaren unitate leialek. Ez zen diziiplina militarri loturiko gertaera bat izan, ziklo iraultzailea behin betiko itxi zuen maniobra baizik. Historiografia kritikoaren zati handi bantentzat, benetako kolpe kontra-iraultzailea izan zen, langile mugimenduaren porrota finkatu eta bide sozialistaren aukera guztiz itxi zuena.



Une hartatik aurrera, Soaresen Alderdi Sozialista finkatu zen indar hegemoniko gisa esparru instituzional berrian, Europako sozialdemokrazia-ren, Estatu Batuen eta Europako Ekonomia Erki-degoaren babesarekin. Portugalgo Alderdi Komunistak, pisu sindikal eta politiko handia izanda, Estatuko esparruetarantz eta MFAko sektoreen aliantzarantz egin zuen, antolaketa autonomo iraultzaileetatik aldenduz. Aitzitik, oinarritzko langile antolakuntzak –lantegietan, auzoetan eta kuarteletan sortutako langile- eta soldadu-komisioak– kolpe handia jasan zuen azaroaren 25eko gertakarien ondoren.

Hain zuzen, 1976ko Konstituzioa izan zen amaiera horren adierazle: PRECaren lorpen asko aitortu arren, demokrazia parlamentario liberalaren eta ekonomia kapitalistaren markoan egituratu zen. Mendebaldeko blokean integratuta geratu zen Portugal, Europako hegoaldeko beste trantsizioen bide beretik. Hortaz, honakoa da paradoxa portugaldarra: gerraosteko prozesu iraultzaile bat izan zitekeen hori kapitalismoaren oinarritzko egiturak erreproduzitu zituen erregimen demokratiko batera birbideratu zen. Azaroaren 25ean, Europako kapitalaren eta inperialismoaren interesekin bateragarria zen irtenbidera bideratu zen Portugalgo diktaduraren krisia.

Oinarritzko langile antolakuntzak –lantegietan, auzoetan eta kuarteletan sortutako langile- eta soldadu-komisioak– kolpe handia jasan zuen azaroaren 25eko gertakarien ondoren

ESPAINIA: FRANKISMOTIK 78KO ERREGIMENERA

Frankismoa 1939ko garaipen militarren os-tean ezarritako diktadura izan zen, 1975ean Fran-cisco Franco diktadorea hil arte iraun zuena. Gerra Zibiletik sortua, “garaituen” eta erregimenaren e-tsaien gaineko indarkeria eta errepresio sistemati-koan oinarritutako erregimena izan zen, eta siste-maren beraren zutabe bihurtu zen. Frankismoaren boterea hiru zutabe nagusitan oinarritu zen: Arma-da, ordena eta kontrol politikoaren bermatzailea; Falangea, alderdi bakar eta enkoadratze aparatu bi-hurtua; eta Eliza katolikoa, legitimazio ideologikoa eta kontrol soziala eman zituena.

Gerra Zibilaren hasieratik bertatik ordena sozial berriaren osagai bihurtu zen errepresioa. Le-hen uneetatik legezko korpus errepresibo bat sor-tu zen erregimenari zilegitasuna emateko. 1940ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, oposizioko kide askok erbestea, espetxea edo heriotza pairatu zu-ten. Ondorioz, altxamenduaren aurka posizionatu ziren alderdi politiko eta mugimenduak desartiku-latu egin ziren. Krisi ekonomikoak baldintza oso gogorrak ekarri zizkien herritar gehienei: gosea, errazionamendua, hornidura faltak eta oinarriz-ko zerbitzuen gabezia orokorra. Erregimenak ez zuen kanpo-laguntzarik jaso (Marshall Plana ez zi-tzaion aplikatu), eta autarkia ekonomikoa bultzatu zuen. Horrela, Espainia Europatik isolatuta geratu zen bai ekonomikoki eta bai politikoki, AEBrekin 1953an sinatutako akordio militarra salbu. Era ho-rretan, nazio kapitalistek demokraziaren gainetik egonkortasun geopolitikoa lehenetsi zutela froga genezake.

Honenbestez, hamarkadaren amaierara arte in-flazio handiak, kanpo-zorrak, dibisa-eskasiak eta barne-merkatuaren geldialdiak baldintzatu zuten Espainiako ekonomia. Erregimenaren autarkia po-litika ageriko porrota izan zen eta erabateko krisia ekarri zuen, eta 1957tik aurrera Opus Deiri lotutako teknokraten gobernuak norabide-aldaketa abiatu zuen: lehenik Europako Ekonomia Lankidetzarako Antolakundean (OECE) eta Nazioarteko Diru Fun-tsean (FMI) sartuz, eta ondoren 1959ko Egonkor-tze Plana ezarriz. Alabaina, Francoren diktaduran ezarritako neurri ekonomikoen multzoa izan zen aipatutakoa, eta ez zuen inongo momentutan egi-tura politikoa bera zalantzan jarri.

Ekonomiaren liberalizazio-prozesu horrek Es-painiak nazioartean sinesgarritasuna berresku-ratzea zuen helburu. Inportazioak eta atzerriko in-bertsioak sustatu ziren, pezetaren bihurgarritasuna ahalbidetu eta dollarrarekin truke-tasa egokitu zen

(42 pezetatik 60ra). Hala eta guztiz ere, neurri ho-riek soldatak izoztea, interes-tasak igotzea, gastu publikoa murriztea eta zergak igotzea ekarri zuten. “Milagro económico español” (Espainiako mirari ekonomikoa) deituriko aldi horrek, beraz, muga na-barmenak izan zituen: hazkundera egon bazen ere, ez zen ez egonkorra, ez orokorra izan.

1960ko hamarkadako hazkundera industriali-zazio selektiboan, atzerriko inbertsioan eta eredu fordistan oinarritu zen. Industriaren %46,8 Kata-lunian, Euskal Herrian eta Madrilen kontzentratu zen, eta horrek lurralde arteko polarizazioa area-gotu zuen. Barne-migrazio masiboak landa-ere-mua hustea, populazioa zahartzea eta hiri-auzo periferikoak sortzea ekarri zituen. “Eraikuntza-ren boom” garaian, urbanismo planifikatu gabea, azpiegitura-eskasia, txabolismoa eta bizi-baldint-za kaskarrak nagusitu ziren. Bestalde, sektore ki-mikoa izan zen hazkundearen motor nagusietako bat, atzerriko kapitalaren %73,8 bertara zuzentzen baitzen; eta turismoa hirugarren oinarri ekonomi-ko bihurtu zen: 1960an 6 milioi turista izan ziren; 1973an, berriz, 36 milioi.

Ekonomiaren hazkundeak aberastasuna sortu bazuen ere, klaseen arteko arrakala argiki areago-tu zuen. Industriaren eta eraikuntzaren sektoreko lanpostuen sorrerak, lan-baldintza prekarioak eta bizi-kalitate apala zekartzaten proletariotzaren-tzat. Finean, teknokrata frankistek desarrollismo ekonomikoaren bidez burgesiaren babesa lortu zuten bitartean, langile klase berria ogi apurrekin konformatzera kondenatu zuten. Halaber, siste-ma kapitalistaren “normalizazio” prozesu horrek

Gerra Zibiletik sortua, “garaituen” eta erregimenaren etsaien gaineko indarkeria eta errepresio sistematikoan oinarritutako erregimena izan zen frankismoa, eta sistemaren beraren zutabe bihurtu zen

Sistema kapitalistaren “normalizazio” prozesuak belaunaldi aldaketarekin egin zuen talka, adin nagusitasunera iritsi ziren gazteak Gerra Zibila amaitu ondoren jaiotakoak baitziren, eta oposizio berria suspertzea eragin zuen horrek

belaunaldi aldaketarekin egin zuen talka, adin na-gusitasunera iritsi ziren gazteak Gerra Zibila amai-tu ondoren jaiotakoak baitziren, eta oposizio berria suspertzea eragin zuen horrek.

Egonkortze Planaren testuinguruan, 1958an onartu zen Hitzarmen Kolektiboen Legea. Lehen aldiz, langileei beren lan-baldintzak kolektibo-ki negoziatzeko eskubidea aitortu zitzaien, nahiz eta oraindik ez zegoen benetako askatasun sindi-kalik. Neurri hori mugarri garrantzitsua izan zen: ordura arte klandestinitatean garatzen zen oposi-zioa fabriketako errealitatean gorpuzten hasi zen. Pixkanaka, lan-mundua erresistentzia eta borroka sozialaren gune bilakatu zen. Langileek, baimen ofizialik gabe, batzorde informalak eta asanblada iraunkorrak sortzen hasi ziren lantegietan. Hasie-ran lan-baldintzak hobetzea zuten xede, baina las-ter bihurtu ziren protesta sozial eta politikorako espazio nagusi.

Horrela, 1962. urtetik borroka sindikala pizten hasi zen, besteak beste, Langile Komisioen (Comi-siones Obreras, CCOO) sorrerarekin. Espainiako Alderdi Komunistak (PCE) ere nagusitasun han-dia eduki zuen langile klasearen borroketan, nahiz eta “eurokomunismoaren” barnean kokatzeko eta borroka iraultzailea baztertzeko hautua egin zuen. Hurrenez hurren, urte hartan bertan, Euskadi Ta Askatasunaren (ETA) kontsolidazioa ere gertatu zen. Hamarkada hark, hainbat sindikatu eta lan-gile mugimenduren sorrera eta aktibazioa eragin zuen, hala nola UGT, CNT, ORT, PCE, LKI, EMK, LAB, ELA eta abar. Datuei erreparatuz, 1963. ur-tean 777 lan-gatazka egotetik, 1976. urtean 40.179 aurrera eramatera igaro zen langile mugimendua. Lan-mundutik haratago, beste espazio sozial batzuk ere borrokarako eta antolaketarako gune bilakatu ziren: unibertsitateak, langile-auzoak, eta, zenbait kasutan, baita elizak ere. Garaiko langile klaseak subjektibitate politiko berria eta borrokarako me-kanismo propioak garatu zituen, eta diktaduraren marko itogarriaren barruan erresistentzia kolekti-boaren sare trinkoa osatu zen.

Haatik, lehen azaldu dugun bezala, borroka anti-frankistak arrisku handiak zekartzan, eta Estatuak argi erakusten zuen ez zuela inolako tolerantziarik oposizioarekiko. Errepresioa gogorra eta sistema-tikoa zen, eta edozein jarduera politiko eta sozial disidente zigortua izan zitekeen. Horretarako, Es-tatuak mekanismo errepresibo berriak garatu zi-tuen, erregimenaren biziraupena bermatzeko eta kontrol soziala sendotzeko. Horren adibide para-digmatikoa izan zen Ordena Publikoko Auzitegia (TOP), 1963an sortua, oposizioaren antolakuntza politiko eta sozialaren aurka jarduteko. Auzitegi horren bitartez, edozein bilera, propaganda, hi-tzaldi, elkarte, manifestazio eta greba delitu gisa tratatzen zen; auzitegiaren neurria izan zen 1963 eta 1975 bitartean 50.000 pertsona baino gehiago epaitu izana. Era berean, erregimenak beste tresna errepresibo ugari baliatu zituen: salbuespen-egoe-rak (1962tik 1975era bederatzi ezarri ziren), auzitegi militarren erabilera, heriotza-zigorrak, tortura eta etengabeko jazarpen poliziala. Auzitegiaren sorrera eta mekanismo errepresibo horien garapena Esta-tu frankistaren biziraupenerako ezinbesteko tresna izan ziren, oposizio oro deuseztatzeko eta gizartea-ren kontrola bermatzeko.

Horrela, hamarkadaren amaierarako, erregi-menaren kontraesanak agerikoak ziren. Ekonomia modernizatzen ari zen bitartean, erregimenaren oi-narrizko zutabeek bere horretan jarraitzen zuten. Horren adierazgarri izan zen 1969an Juan Carlos Borboikoa Francoren oinordeko eta errege izendat-zea, sistema frankistaren jarraipena bermatzeko asmoz. Gainera, 1970eko hamarkadan, Estatuare-kin lotura zuzena zuten talde parapolizialak sortu zituzten, kontrolaezina bihurtzen ari zen egoerari aurre egiteko.

Francoren diktadura hedabide ofizialen bidez kontrol eta segurtasun itxura ematen saiatu ba-zen ere, bigarren frankismo garaian (1959-1975), eta batez ere, Burgosko prozesuaz (1970) eta Ca-rrero Blancoren atentatuaz geroztik (1973), erre-gimena sostengatzeko esfortzuak larriki handiak

ziren. Kanpo presioa ere itogarria bihurtu zen; izan ere, Espainia ez zen onartua izango Mendebaldeko aliantza estrategiko eta ekonomikoetan (NATO, EEE) baldin eta erregimen autoritarioaren pean mantentzen bazen. Faktore horiek elite politiko eta ekonomikoen artean presio eta beldur argia sortu zuten: Europan integratzeko eta nazioarteko legimititatea irabazteko demokrazia ezarri beharra zegoen.

1975ean, Franco hil eta Juan Carlos I.a errege izendatu ostean, diktaduraren zutabe garrantzitsuak indarrean mantendu ziren (armada, eliza, administrazioa...). Aldi berean, Adolfo Suárez lehen ministro izendatzearekin batera (1976), egitura politikoa eraldatzeko lehen urratsak eman ziren. Egin-eginean ere, ikusi bezala, Espainian ere mobilizazio soziala erabakigarria izan zen erregimenean pitzadurak irekitzeko. Baina mobilizazio horren zati handi bat esparru instituzionalera bideratu zen, gobernuaren eta oposizioko indar nagusien (PSOE, PCE, CCOO, UGT...) arteko akordio politikoen bidez. Testuinguru horretan, Moncloako Ituna (1977) izan zen une erabakigarria: egonkortasun ekonomikoaren eta politikoen aldeko akordioak ezarri ziren, monarkia, Estatuaren batasuna eta merkatu-ekonomia onartzearen truke.

Ondorioz, kalean protagonismoa izan zuen ezker iraultzailea (PTE, EMK, LKI, ORT, eta abar) neutralizatuta geratu zen, eta PSOEk eta PCEk sistema berriaren kontsolidazioan paper erabakigarria hartu zuten. Sistema kapitalista indartuta ateratu zen, eta ordezkariak instituzionalak zuten alderdi gehienak eta, garrantzitsuena, herritarren gehiengoaren babesa jaso zuen monarkia parlamentarioak. Ordutik aurrera, kapitalismo espainiarrak zilegitasun-iturri berriak izan zituen, eta horren ondorioz, haustura politikoen aukera urrundu egin zen jendartetik.

Hortaz, Espainiako trantsizioa goitik adostutako erreforma izan zen: erregimeneko elite politiko eta ekonomikoek bultzatu, eta oposizioaren gehiengoak onartu egin zuen. Oposizio horrek, sistema berrian integratzeko asmoz, bere programaren oinarri askori uko egin zion. Prozesua, gainera, ez zen inolaz ere baketsua izan; aitzitik, poliziaren errepresioak, eskuin muturreko talde parapolizialen jardunak, eta frankismoaren aparatu errepresiboen jarraipenak markatu zuten. 1978ko Konstituzioak demokrazia parlamentarioa eta monarkia finkatu zituen, baina frankismoaren oinarritzko egitura politiko, militar eta judizialak mantendu egin ziren. Trantsizio “eredugarriaren” narratibak errealitatea estali zuen: indarkeriaren, jarraipenaren eta egokitzenaren bidez gauzatu zen aldaketa. Azken finean, kapitalismo espainiarra sendotu, eta nazioarteko legimitate eta

Espainian, mobilizazio sozialaren zati handi bat esparru instituzionalera bideratu zen, gobernuaren eta oposizioko indar nagusien (PSOE, PCE, CCOO, UGT...) arteko akordio politikoen bidez. Testuinguru horretan, Moncloako Ituna (1977) izan zen une erabakigarria

integrazio oinarri berriak ezarri ziren, sistema politiko berria egonkortasunaren eta kontrol sozialaren tresna bihurtuz.

GREZIA: KORONEL ENERREGIMENETIK DEMOKRAZIA BERREZARTZERA

Greziako Koronelen diktadura 1967ko apirilaren 21ean emandako kolpe militarren ostean ezarri zen. Armadaren sektore batek burutu zuen, AEBren eta NATOren laguntzarekin, Grezia kontrolpean eduki nahi baitzuten Gerra Hotzaren testuinguruan. Zazpi urtez iraun zuen erregimen autoritario eta militarista horrek. Besteak beste, alderdiak desegin, askatasun politikoak murriztu, zentsura ezarri eta oposizioa jazarri zen erbesteratze, tortura eta atxiloteta masiboen bidez. Bereziki, militante komunisten aurkakoa izan zen oldarraldia. Funtsean, diktadura burges militarizatu bat izan zen, diziplina soziala bermatu eta Greziako elite ekonomikoen interesak babesten zituen.

Diktaduraren krisia bultzatu zuten faktoreen artean, alor ekonomikoari dagokionez, eraikuntzan, turismoan eta atzerriko kapitalean oinarritu zen Juntak bultzaturiko eredua. Horrek, baina, laster erakutsi zituen mugak, eta petrolioaren krisiak tentsioa areagotu zuen, inflazioa handitu eta eros-ahalmena jaitsi baitzen. Baldintza ekonomiko horiek egonezina eta protesta sozialak areagotu zituzten langile eta ikasleen artean. Egin-eginean ere, 1973an gertatu zen oposizioarekin loturiko gertakari entzutetsuena: Atenaseko Unibertsitate Politeknikoko altxamendua.



Hainbat egunez, milaka ikaslek aipatutako uni-bertsitatea okupatu, eta diktaduraren aurka egiteko deia egin zuten bertatik. Erregimenaren erantzuna errepresio gogorrarena izan zen: azaroaren 17ko gauean tankeak sartu zituen unibertsitatera, eta indar polizialek tiro egin zieten manifestariei. Dozenaka hildako eta ehunka zauritu eta atxilotu izan zen emaitza. Nahiz eta diktadurak matxinada zapuztea lortu, gertakariak erresistentziaren ikur nazional bihurtu ziren. Hortaz, inflexio-puntu bat ezarri zuen erregimenaren krisiaren baitan, zeinak ordutik ez baitzuen legitimitatea berrosatzea lortu.

Hala ere, Greziako diktaduraren amaiera Zipreko krisiak ezaugarritu zuen batez ere, hori izan baitzen erorketa azkartu zuena. 1974ko uztailaren 15ean, Koronelek Zipreko Makarios III presidentearen aurkako kolpea antolatu zuten, Zipreren eta Greziaren arteko bateratzea lortzeko asmoz. Helburua garai-pen nazionalistaren bitartez Juntaren zilegitasuna indartzea zen, baina kontrako eragina izan zuen. Hain zuzen, Turkiak inbasio militarra abiarazi zuen gutxiengo turkiar-zipretarrak babestearen argudio pean. Diktaduraren erantzuna kaotikoa izan zen, armadaren barne-gatazkek hura ahuldu, eta ez zuten Turkiari aurre egiteko gaitasunik izan. Hortaz, defentsak porrot egin eta Ankarak uhartearen zati handi bat kontrolatu zuen handik gutxira. Horrek, botere aparatua krisian jarri, eta iritzi publikoaren aurrean ere erregimena gehiago hondoratzea eragin zuen.

Ondorio horietara iristeko baina, AEBren eta NATOren papera funtsezkoa izan zen. Izan ere, urteetan zehar Koronelen diktadura onartu eta babestu zuten, besteak beste, lotura geopolitikoa bermatzeko asmoz. Zipreko krisiak, ordea, arriskuan jarri zuen Aliantza Atlantikoaren hego-hegaleko kohesioa. NATOko kide ziren bi herrialderen arteko gatazka eragin zuenez, Greziako diktadura arazo bilakatu zen, egonkortasun-faktore baino. Horregatik, Washingtonen erabakia inolako esku-hartzerik ez izatea eta errelebo politiko azkar bat antolatzea izan zen. Hain zuzen ere, Konstantínos Karamanlís erbestetik itzuli, eta hark trantsizio kontrolatu bat abiatu zuen. Diktadura, beraz, egun gutxitan erori zen, eta botere ekonomiko eta geopolitikoen oinarriei eutsiko zien prozesu bat abiarazi zen.

Konstantínos Karamanlís kontserbadorearen itzulerak, beraz, mendebaldeko potentzien babesa izan zuen, krisi soziala kontrolatu eta Greziak bloke atlantikoan jarraitzea baitzen hasiera-hasieratik helburua. Demokrazia liberalerako urratsak egin ziren, hala nola alderdi politikoen legeztatzea, hauteskundeak deitzea eta errepublika aldarrikatu zuen

erreferenduma gauzatzea. Neurri hauek legitimitatea eman zioten sistema berriari, baina ez zituzten aurreko erregimeneko botere-egiturak aldatu.

Diktaduraz baliatu ziren elite ekonomikoek, adibidez, bere posizioari eutsi zioten. Armadak, bere aldetik, koronel batzuk bota bazituen ere, ez zuen garbiketa sakonik egin eta ordenaren azken bermatzaile izateko zereginari eutsi zion. Era horretan, Greziako trantsizioak ez zuen hausturarik ekarri, ordena kapitalista forma parlamentario berri baten pean birkonfiguratu baitzen. Helburua lortu zen: herrialdea mendebaldeko blokean integratzea eta interes zapaltzaileen jarraipena bermatzea.

KONPARAKETA: KAPITALISMOAREN BERROSAKETA EUROPAKO HEGOALDEAN

Ikusi dugun moduan, Europa hegoaldeko trantsizioek kronologia partekatu bat izan zuten: 1974 eta 1976 urteen artean hiru diktadurak amaitu ziren ia aldi berean. Horren ondorioz, “olatu demokratizatzaile” delakoaren inguruan hitz egiten hasi zen. Azaldutako trantsizioak perspektiban aztertuta, ordea, gertatu zena Europa hegoaldeko berrantolaketa politikoa izan zen, mendebaldeko kapitalismoaren fase berri baten barrenean. Diktadurak ezberdinak izan ziren funtsean, eta trantsizioek ere askotariko ezaugarri propioak izan zituzten, baina emaitza oso antzekoa izan zen hiruretan: herrialdeen integrazioa bloke atlantikoan, eliteen jarraipena eta Estatuaren izaera errepresiboa, besteak beste.

Funtsean, diktadurak ezberdinak izan baziren ere, emaitza oso antzekoa izan zen hiruretan: herrialdeen integrazioa bloke atlantikoan, eliteen jarraipena eta Estatuaren izaera errepresiboa, besteak beste

Hiru kasuetan, diktadurak agortzeak bat egin zuen eredu desarrollisten krisiarekin eta nazioarteko kapitalaren beharren aldaketarekin, eta horrek berrosatze politikoa eskatzen zuen. Hots, ordena soziala mantentzeko forma politiko berriak erabiltzea. Testuinguru horretan, funtsezkoa izan zen AEBren eta NATOren zeregina: lehentasuna ez zen demokratizatzea, baizik eta SESBen aurrean Mendebaldeak bere egonkortasuna mantentzea, eta fluxu energetiko eta militarren kontrola. Horregatik bultzatu zituzten trantsizio kontrolatu horiek, modu batera edo bestera. Hala ere, barne dinamika ezberdina izan zen leku bakoitzean.

Demokrazia liberalaren diskurtsoa funtsezko tresna izan zen botere-egitura berriak legitimatzeko. Hain zuzen, itxurazko irekiera politikoa haustura gisa aurkeztu bazen ere, errealitatean boterea berrantolatu zen. Espainian “adiskidetze nazionalaren” diskurtsoa, Portugalen “Europara itzultzea” eta Grezian “errepublikaren legezkotasunera” itzulztearen narratibak baliatuz, elite ekonomiko eta burokratikoen jarraipena ezkutatu zuten.

Espainiaren kasuan, bereziki nabarmena da: frankismoaren egituretan parte hartu zuten askok mantendu zituzten beren posizio estrategikoak trantsizioan zehar, sistema berrira egokituta. Hau da, monarkiaren, goi-agintari militarren, epaileen, patronalaren eta polizia-aparatuaren zati handi bat bere horretan geratu zen, esparru konstituzional berriaren pean. Portugalen, Espainian eta Grezian, herritarren parte-hartzea, oro har, prozesu elektroaletara mugatu zen, eta egiturazko aldaketen eztabaida sistematikoki baztertua izan zen.

Herri-mobilizazioak funtsezkoak izan ziren hiruretan, baina helmuga ezberdinak izan zituzten. Portugalen, nabarmendu dugu indar armatuek gainezka egin zutela aurrekaririk gabeko langile antolakuntzaren aurrean. Hala ere, 1975eko azaroaren 25ean iraultzaren zikloa amaitu zuen kolpearen bitartez bideratu zuten prozesua. Espainiaren kasuan, askotariko antolakuntza eta erresistentzia antifrankistak erregimena kolokan jarri zuen 60ko hamarkadatik, eta 1975-1977 arteko goren uneak antolakuntzaren indarra eta Estatuaren errepresioaren jarraipena azaleratu zituen. Hain zuzen ere, eta Euskal Herrira etorriz, errepresioak —frankismoaren azken fusilamenduak, 1976ko Gasteizko sarraskia, 1977ko amnistiaren aldeko manifestazioak eta 1978ko sanferminetan hildakoak— agerian utzi zuen Estatuaren indarkeriak kontrol sozialerako funtsezko tresna izaten jarraitu zuela. Erretorika demokratikoak ezin zuen ezkutatu jarraitutasun poliziala, militarra eta judiziala. Grezian, ikasle eta

Erretorika demokratikoak ezin zuen ezkutatu jarraitutasun poliziala, militarra eta judiziala

langile erresistentzia erabakigarria izan zen Koronelak eraisteko, baina armadak bere papera mantendu zuen errepublika berrian.

Beraz, hiru trantsizioak logika berean bildu zirela esan daiteke: gatazka instituzionalizaziora eta desmobilizaziora bideratzea. Diktadura horiek kokan jarri zituen mobilizazioa kasu askotan alderdi, sindikatu eta hauteskunde prozesuek xurgatu zuten. Hala ere, legezkotasun berriak ez zuen sektore askoentzat diktaduren amaiera ekarri, forma berrian horri jarraipena ematea baizik. Lan gatazken, aldarrikapen nazionalen, eta agitazio kulturalaren eta politikoaren testuinguruan mugimendu berriak sortu ziren, ordena berriaren izaera salatu zutenak. Euskal esperientziak erakusten duenez, trantsizio politikoen zikloa ez zen 1978an itxi, erregimen berriaren eta gizarte-sektore zabalen arteko gatazkek bere horretan jarraitu baitzuen. Horregatik, trantsizioak itxiera prozesu bezala aurkeztu ziren arren, egiazki erresistentzia luzeen ziklo bat ere ireki zuten hiru herrialdeetan.

Hortaz, esan dezakegu Europa hegoaldeko trantsizio prozesuek ez zutela hausturarik ekarri, boterea berrantolatu baizik. Demokrazia liberalaren hizkuntzara itzuli ziren aurretiko egiturak, eta, kasu guztietan, ordena soziala bermatzea izan zen helburu nagusia; hau da, bloke atlantikoan txertatu eta eraldaketarako aukera oro neutralizatzea. Alabaina, hiru kasuetan iraun zuten gatazka-espazioek eta memoria subalternoek. Mugimendu horiek guztiek ordena berriaren mugak ikusarazi zituzten: demokraziak, hertsadura eta errepresioa ezabatzetik urrun, legezkotasunaren barruan birdefinitu zituen. ●

HAUTSI EZIN ZEN SOKA

DEMOKRAZIA BURGESA BERMATZEKO AKORDIO POLITIKO-SOZIAL GARRANTZITSUAK TRANTSIZIO GARAIA

Testua — **Jon Aldabaldetrek**

Frankismo osteko garaia mundu-mai-lako krisi ekonomiko sakon eta larri baten testuinguruan hasi zen. Krisi horrek amaiera eman zion 50eko eta 60ko hamarkadetako urrezko garaia. Frankismo berantiarreko garapenaren aldiak estatuko egoera ekonomikoa suspertu zuen: 70eko hamarkadaren hasieran, biztanleko bi mila dolarretik gorako errenta lortu zen estatuan, aurreko hamarkadan urteko %6ko hazkunde-tasa izan ondoren. Errentaren hazkundearen %95 lanaren produktibitatearen hazkundearen ondorio izan zen, zaharkitutako teknikak ordezkatzearen, baliabide ekonomikoak jarduera produktiboagoetara bideratzearen eta kapital-metaketa areagotzearen ondorioz, hain zuzen.

Frankismo berantiarreko urteak ekonomikoki oso oparoak izan baziren ere, borroka eta protesta sozialaren lekuko izan ziren halaber. 1970etik aurrera greben ziklo gorakor nabarmena izan zen Espainiako Estatuan. Hein handi batean, baldintza ekonomikoen hobekuntzak eta diktadurak ezarritako errepresioak politizazioa eta erradikalizazioa eragin zuen langile mugimenduko kapa nagusietan. Lan gatazketan adostutako hitzarmenak berehala agortzen ziren greba berriak martxan jarri ahala, eta soldaten hazkuntza negoziatuak izugarri hazi ziren industria-sektore gehienetan. Testuiguru horretan, 70eko hamarkadan hasi eta Francoren heriotzaren ondorengo urteetan konfirmatu zen akordio sozial berria eratu zen Espainiako Estatuan.



Garai hartako egoera gatazkatsua modu oso argigarrian ikus daiteke datu xume batzuk mahaigaineratuta. Balfourren eskutik, 1968 eta 1976 artean Espainiako Estatuan piztu ziren gatazka kopurua, inplikaturako langileen kopurua eta grebetan galdutako ordu kopuruak ageri zaizkigu:

ESPAINIAKO ESTATUKO GATAZKA LABORALAK (1968-1976):

URTEA	GATAZKAK	INPLIKATUTAKO LANGILEAK	GALDUTAKO ORDUAK
1968	351	130.742	1.925.278
1969	491	205.325	4.476.727
1970	1.595	460.902	8.738.916
1971	616	222.846	6.877.543
1972	835	277.806	4.692.925
1973	931	357.523	8.649.265
1974	2.290	685.170	13.989.557
1975	3.156	647.100	14.512.000
1976	40.179	2.519.000	106.506.000

Iturria: Balfour, Sebastian. *La dictadura, los trabajadores y la ciudad*. Edicions Alfons El Magnànim. Generalitat Valenciana. Valentzia, 1994:160.or.

Protesta ziklo berri haren olatua gelditu ezinik, Erregimenak, bere instintuari jarraituz, errepresio mekanismoak martxan jarri zituen. Alabaina, Poliziaren eta tribunal judizialen papera indartzea sua gasolinarekin itzaltzen saiatzearen parekoa izan zen. Diktaturaren amaiera-fasean, Poliziaren jazarpen eta basakeria hori langile klaseko protesten arrazoi nagusienetako bat bilakatu zen.

Trantsizio garaia deitu izan zaion hark bi aspektu nagusi barnebildu zituen, batez ere: batetik, Trantsizioaren joko arauak onartu zituzten aktore politikoen artean adostutako estatu-mailako akordio politiko eta soziala; bestetik, aurreko hamar-

Frankismoaren azken urteetako baldintza ekonomikoen hobekuntzak eta diktadurak ezarritako errepresioak politizazioa eta erradikalizazioa eragin zuen langile-mugimenduko kapa nagusienetan

kadatik sustatzen ari zen lan zentroetako ekoizpen ereduaren moldaketa, eredu fordistaren ezarpena gauzatuz eta Kapitalaren arnasgune bihurtuko zen lanaren antolaketan aldaketa berriak eginez. Azken moldaketa hori lan zentroetan martxan zeuden errepresio laboreleko hainbat mekanismok ere erraztu zuten. Artikulu honetan, lehen puntuari eskainiko diogu tartetik handiena.

Trantsizio garaiaren ernamuina 1975. urtea izan zen; hain zuzen ere, Franco hil zen urte hura mota guztietako krisi egoeraz josita egon zen. Diktado-rea hil berritan, esparru politikoko eragile ezberdinak egoera berri zein ziurgabe hartara moldatzen ahalegindu ziren. PSOEk bultzatutako Konbergentzia Demokratikoa eta PCEk mugitutako Junta Demokratikoa sozialdemokraziak bultzatutako saiakeretako bi besterik ez ziren izan. Biek ala biek Erregimenaren alternatiba bihurtu nahi zuten eta, horretarako, fronte zabal baten pean diskurtso moderatu eta arduratsua zabaldu zuten.

Bi proposamen horiek bateratu egin ziren, 1976ko martxoan, Koordinazio Demokratikoa edota kalean “*Platajunta*” izenez ezagutzen zen koalizioa sortu zutenean. Plataforma hori alderdi politikoentzat erreserbatuta zegoen, eta kanpo geratu ziren alderdi eta antolakunde politiko iraultzaileak, eragile sozial eta zibilak, eta antolakunde sindikalak.

Hala ere, garai hura espektro politiko instituzional osoa, eskuinetik ezkerrera, batuko zuen estatu-mailako makroakordioen garaia ere izan zen. Manuel Fragak ederki laburtu zuen akordio politiko interklasista haren fundamentua *Cambio 16* egunkarian: “*Evolución sin revolución*”. Estatu akordio horien helmuga, beraz, garbia zen; etorkizuneko garapen ekonomikoa eta politikoa iraultzarik gabeko trantsizio baketsu eta kontrolatu baten bitartez egitea. 1977ko apirila zen, eta Espainiako Alderdi Komunista (PCE) legeztatu berri zuten.

Esan dezakegu PCEk, Santiago Carrilloren zuzendaritzapean, Palmiro Togliattik gidaturiko Italiako Alderdi Komunistak (PCI) II. Mundu Gerra amaieran garatu zuen antzeko programa politikoa erabili zuela: unitate nazionaleko gobernuaren osaketa, demokrazia parlamentarioaren ezarpena, aurreko zikloko errepresaliatuen amnistia orokorra eta monarkiari eustea. Programa hori aise ikus daiteke islatuta garaiko PCEn, Carlos Arias Navarro-rekin alderdia legeztatzeko baldintzak negoziatzen zituen bitartean.

Antzeko tirabirak izan ziren, baita ere, Franco osteko garaia gobernatu nahi izan zuen eskuin frakzioan. Juan Carlos erregeak, 1969ko Ondo-

Espektro politiko instituzional osoa batzen zuten estatu akordio horien helmuga, beraz, garbia zen; etorkizuneko garapen ekonomikoa eta politikoa iraultzarik gabeko trantsizio baketsu eta kontrolatu baten bitartez egitea

rengotzaren Lege frankistan oinarrituta, Adolfo Suarez ezarri zuen gobernuburu, ahaztu gabe Torcuato-Fernández Mirandak izan zuen paper garrantzitsua. Izendapen horiek arrakala sortu zuten frankisten artean, hala nola Arias Navarro, Areilza eta Cabanillas, eta Areilzak berak, *Cuadernos de la Transición* lanean, “*prozesu konstituziogilea, eredu postfrankistako programa ekonomikoa, erreforma sindikala eta erregionalismoaren mugak*” ezartzen zituen puntuak aldarrikatu zituen. Auzi nagusia, hein handi batean, Espainiako Alderdi Komunista “*trantsizio-akordioan*” sartzean edo kanpo uztean zegoen, erabaki hark ezker erradikala jokoz kanpo utziko zuelakoan.

Erreforma Politikorako Legea (1977) izan zen Trantsizioa abiarazteko giltzarri inportanteena. Lege horren arabera, frankismoak ezarritako gorteen sistema alboratu eta parte-hartze demokratikoaren bidez aukeratutako gorte berriak sortu behar ziren; aldaketa hori trantsizio prozesua makillatzeko bitarteko gisa erabili zuten. Erreferendumak %77ko parte-hartzea izan zuen, eta %94k alde bozkatu zuen. Gipuzkoan eta Bizkaian, ordea, abstentzioa izan zen nagusi

Hala ere, Erreforma Politikorako Legeaz gain, Trantsizio garaia benetan markatu zuten bi gertaera nagusiak 1977ko Moncloako Akordioak eta 1978ko Espainiako Konstituzioaren onespena izan ziren. Lehenak arku parlamentario osoko alderdien arteko akordio sozial eta ekonomikoa ixtea zuen helburu, PCE barne, eta Adolfo Suarez izan zuen buru. Alderdiez gain, enpresariak eta CCOOren zatirik handiena ere barne hartu zituen akordioak. Fragaren Aliantza Popularrak soilik akordio ekonomikoak sinatu zituen.



1. IRUDIA: Moncloako Akordioak (1977). Tartean, Felipe Gonzalez (PSOE), Santiago Carrillo (PCE), Adolfo Suarez (UCD) eta Manuel Fraga (AP).

Iturria: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes.

Gipuzkoa eta Bizkaia izan ziren salbuespena, bertan ezezkoa eta abstentzioa izan baitziren nagusi.

Portugalen izandako Krabelinen Iraultzaren ondoren, Espainia zen Europan gelditzen zen diktadura bakarra garai hartan, eta nazioarteko aktore ugari gertutik jarraitzen zuten herrialdearen bilakaera. Mundu-mailako organismo eta potentzia ekonomiko nagusientzat, Estatu Batuak buru, ezinbestekoa zen Espainia mundu-ordena ekonomiko berrian txertatu eta eremu estrategiko gisara berrestea. Ezin uler daiteke bestela Ford Administrazioak eta Henry Kissingerrek Espainian jarritako arreta eta interesa. Estatu Batuek aise onartu zuten Trantsizio garaiko erreforma gradualaren eredua.

Fragak esku artean zuen eredua, Canovasen ereduaren oso antzekoa zen, hau da, txandakatzean oinarritutako joko “demokratikoa” proposatzen zuen. Hala esan zien aurpegira 1976ko apirilean Felipe Gonzalez, Luis Gómez Llorenteri eta Miguel Boyerri, zentro-ezkerreko ordezkari zirenei: “*Nire lorpen handiena zuek presidente izatera iritsi zaitezketen sistema bat sortzea izango litzateke, agian bost urte barru*”. Ukaezina da Fragak etorkizun-sen bikaina zuela.

Protesta soziala eta politikoa pil-pilean ziren une batean, ezkerrek eta eskuinak Kapitalaren mesedetara belaunikatuta bat egitea lortu zen Moncloako Akordioen bidez

Moncloako Akordioek, nolabait, estatu akordio baten antza zuten; izan ere, demokrazia liberala ezartzea eta demokrazia horren segurtasuna mantentzeko arku parlamentario osoko aktore politikoen konpromisoa lortzea zuen helburu. Labur esanda, akordio hark protesta soziala baretu, fabriketan bakea bermatu, soldaten igoerari kontrola ezarri eta enpresen irabazi beherakorrei erreku-perazio marko bat eskaintzea zuen helburu.

Akordio horien garrantzia ez da makala; izan ere, protesta soziala eta politikoa pil-pilean ziren une batean, ezkerrek eta eskuinak Kapitalaren mesedetara belaunikatuta bat egitea lortu zen haien bidez. Akordio horien esentzia ulertzeko, Carrillok

berak botatako esaldi honi erreparatzea besterik ez dago: (Moncloako Akordioak) “*Acuerdo progresista más serio que se ha realizado en nuestro país desde los años treinta entre fuerzas obreras y burguesas*”. Esaldi horrek argi eta garbi definitzen ditu Espainiako Alderdi Komunistaren postuluak: asmo iraultzaileak albo batera gelditu ziren.

Fuentes Quintanaren arabera (akordio horiek gidatu zituen ekonomialari nagusia), Moncloako Akordioetan adostutako politika honako printzipio hauetan oinarritzen zen: 1) “krisiaren kostuak eragile ekonomikoen artean banatzeko” akordioa lortzea; 2) ekonomia lau norabide hauetan erregulatzea: prezioak, kanpo-ekonomia, ekoizpena eta

sistema ekonomikoa; 3) “saneamendu ekonomikoa eta erreforma-politika orokor” bat abian jarriko zuen politika ekonomikoa martxan jartzea; 4) sistema ekonomikoa merkatu-ekonomiaren printzipioetara egokitzea; eta 5) ekoizpen-doikuntzaren berrikuntza gauzatzea.

Bestetik, 1978ko Konstituzioaren onespenera-kin amaituko zen prozesu konstituziogileak Moncloako Akordioetan erabakitako berregituraketa horri guztiari berme juridikoa ezartzea izan zuen helburu. Kontsentsu politikoa zuen eslogan gisa Konstituzioak, eta PSOEtik hasita, UCDk, PCEk, katalanistek eta Fragaren alderdiak sinatu zuten. Konstituzioaren erreferendumean, beste behin ere,



Estatu-mailako akordio horiek sinatu ziren garaia, aipatu bezala, krisi ekonomiko larriak gogor kolpatutako garaia izan zen. Herrialde industrializatu nagusiek 1975-1977 artean lortu zuten, sakrifizio handiekin, prezioen igoera erdira jais-tea. Espainian, aldiz, bikoiztu egin ziren; Mercedes Cabreraren arabera, bizitzaren kostua %19 igo zen 1976an, eta 1977an %30era iristeko arriskua zegoen. Langabeen kopurua %5era iristen zen, eta, kanpoko defizitari dagokionez, 1975ean 3.500 milioi dolarrekoa bazen, 1976an jada 4.200 milioi dolarrean kokatu zen, eta urte horretan bertan 5.000 milioi-koa izatera iritsi zen.

Beraz, krisi testuinguru gogorrak eta 40 urteko diktaduraren ostean azaltzen hasiak ziren ziurgabetasun momentuek markatu zuten batez ere garai historiko hura. Hala, Frankismotik zetorren Erregimenak Espainia zirkuitu kapitalista modernoetan txertatzeko saiakera bultzatu zuen akordio ekonomikoen laguntzarekin, eta joko-zelai politikoa aise mugatu zuen, saiakera iraultzaile oro borrokatzeko asmoz. Hala ere, berregituraketa sistemiko horrek hirugarren moldaketa bat eskatzen zuen: bizi baldintza ekonomikoak hobetzen ikusi zituen eta diktaduraren amaierarekin borrokarako grina berreskuratu zuen langile mugimendua isilaraztea.

Posible al zen akordio politiko hura gauzatzea ordura arte gatazkatsua izan zen langile mugimendua baretu eta apaldu gabe? Horixe da garai hartako beste auzi esanguratsua: bitartekaritza sindikalak akordio politikora azpiratu ziren. Hau da, akordio politikoak akordio soziala eskatzen zuen, eta akordio sozial hori erdiesteko ezinbestekoa zen langile mugimenduaren barruko aktoreen subordinazioa, hau da, sindikatu eta langile alderdien subordinazioa.

Xavier Domenechek iradoki zuen erregimen berria ezartzeko aukerak derrigorrez behar zuela klase sozial ezberdinen arteko oinarritzko kontsentsu baten artikulazioa. Hala, langile klasean barneratutako ekonomizismoa izan zen Espainiako Estatuaren “demokratizaziorako” oinarria.

Agian, prozesu horren islarik adierazgarriena CCOOren bilakaera izan zen. *Comisiones* gisa eza-guna zena 1976an formalizatu zen sindikatu gisa (CCOO), eta jardun klandestinoa atzean utzita, instituzionalizazio prozesua hasi zuen, “tankera berriko sindikatu” gisa aurkeztuz bere burua eta ordezkari-tza territorialak eta idazkaritzak eratuz. Badakigu hasiera batean *comisiones* ezberdinak existitzen zi-rela fabriketan, batzuk PCEr lotutakoak, beste bat-zuk ORTri lotutakoak, eta bazeuden, halaber, sekto-re autonomoetan mugitzen zirenak. PCeren kontrol

sistematikoa ezartzeko saiakerek prozesu hartaz mesfidati agertu ziren PCeren barruko bi eszisio eragin zituen: PTE eta ORT. Gerora, 1979an, PTE eta ORT unifikatu egin ziren, euren arteko errezelo eta mesfidantzak agertu baino lehen. Hauteskudeetako porrotek galbidera eraman zituzten bi alderdiak. Bakoitzak bere sindikatua sortu zuen oster, lehe-nek CSUT (Confederación de Sindicatos Unitarios de Trabajadores) eta besteek Sindikatu Unitarioa.

Beste hainbat sindikatuk ere bere burua berran-tolatu behar izan zuten, CNTk edota USO sindika-tuak kasu. Euskal Herrian ere berrikuntza nabarme-nak izan ziren. Eusko Langileen Alkartasunak (ELA) birsorkuntza-prozesua izan zuen garai hartan. Bes-talde, Ezker Abertzalearen eskutik, bere burua “sin-dikatu ez negoziatzaile” gisa aurkeztu zuen Langi-le Abertzaleen Batzordeak (LAB) sortu zen 1974an. Langile antolakuntzaren formak, urte luzez fabri-ketako asanbladetan, koordinadoretan edota komi-teetan oinarritu ziren horiek, modu oso bizkorrean aldatu ziren, eta protagonismo nagusia sindikatu instituzionalen negoziazio mahaien eta euren arte-ko afiliazioen esku gelditu zen. Sindikatu eredu ber-ri horren berehalako beharrak honako hauek izan ziren: siglak egonkortzea, burokrazia-sistema era-tzea eta askatasun sindikalaren premisari jarraikiz jarduten hastea. Horretarako 1977an Elkarte Sindi-kaletarako Legea onetsi zuen Estatuak.

Frankismotik zetorren Erregimenak Espainia zirkuitu kapitalista modernoetan txertatzeko saiakera bultzatu zuen akordio ekonomikoen laguntzarekin, eta joko-zelai politikoa aise mugatu zuen, saiakera iraultzaile oro borrokatzeko asmoz

Akordio politikoak akordio soziala eskatzen zuen, eta akordio sozial hori erdiesteko ezinbestekoa zen langile mugimenduaren barruko aktoreen subordinazioa, hau da, sindikatu eta langile alderdien subordinazioa

Sindikalgintza-eredu berri hark ordura arte langile borrokaren arrazoi nagusia izan zen afera ezabatu zuen kolpetik: fabriketan egiten ziren ne-goziazioen amaiera ekarri zuen. Izan ere, langile mugimenduaren indarra, kasu askotan, fabriketan bertan egindako borroketatik eratortzen zen, fabri-kako langileen artean batasuna erdiesten baitzen helburu komun batzuk lortzera bidean. Une harta-tik aurrera, ordea, negoziazio mahaiak soilik sindi-katuetako ordezkarien esku gelditu ziren eta, gai-

nera, marko berri bat ezarri zen negoziaketarako, industria-arloen araberakoa, sektoreetan edota estatu-mailako hitzarmen handietan kontzentra-tzen zena. Beraz, gertuko presio-mekanismo oro goi-esferetako instantzia marduletan negoziatzen hasi ziren eredu berri horren ondorioz.

Emmanuel Rodriguezek adibide oso garbia es-kaintzen du prozesu hori ulertzeko: 1976an, Bar-tzelonako Gavà hiriko Roca enpresan geldialdiak eta protestak hasi zituzten lan baldintza hobeen al-de. Beste hainbatetan bezala, enpresako langileek modu autonomoan eratutako langile asanblada sor-tu zuten, euren ordezkari-tza propioekin. Borroka-rako modu horrek asanblearismoak zituen mugak erakutsi zituen negoziazio eredu berriarekin alde-ratuta; izan ere, garai hartara arte oso ohikoa zen gainerako fabriketan elkartasun geldialdiak, pro-testak eta mobilizazioak egitea, baina hiru hilabete iraun zituen gatazka hartan, gainerako fabriketan blokeo bat ezarri zuten sindikatu-ek, elkartasun keinuak galaraziz marko sindikal berriari jarraikiz.

Une hartatik aurrera, elkartasun grebek arau izateari utzi eta salbuespen bilakatu ziren, “eran-tzukizunaren”, “negociazio legalaren”, “ordezkaga-rritasunaren” eta “enpresaren biziraupen ekono-mikoaren” mesedetan. Efemeride garrantzitsu gisa, 1976 Espainiako Patronalaren (CEOE) sorrera-ur-tea ere izan zen.



***Sindikalgintza-eredu
berri hark ordura arte
langile borrokaren
arrazoi nagusia izan
zen afera ezabatu zuen
kolpetik: fabriketan
egiten ziren negoziazioen
amaiera ekarri zuen***

Juridikoki, grebarako eskubidea ez zen 1977ra arte legeztatu; urte hartan onartu zen eskubide hori lehen aldiz, minimoetan izan bazen ere. Horrek ekarri zituen aldaketen artean, aipatzekoa da 1977ko martxoaren 4ko Lan Harremanen Lege Dekretuaren bitartez greba-komiteak ezarri zirela gatazkan zeuden langileen ordezkari gisa, nahiz eta greba bera honako parametro hauetan kokatu zuen Estatuak: batetik, greba soilik lan zentroko ordezkarien 3/4ak onartuta eraman zitekeen aurrera; greba-komiteek gehienez ere 12 kide izan zitzaketen; greba-eskubidea baliatzeak ezingo zuen zigorrik ekarri; ezingo ziren enpresatik kanpoko langileak kontratatu grebak irauten zuen bitartean; eta propagandarako eta diru-bilketetarako baimena ematen zen.

Hala ere, muga nabarmenak ekarri zizkion langileen antolakuntzari: sektore ekonomiko estrategikoetako grebak, ardura-grebak edota txandakako grebak ilegaltzat jo ziren; Gobernuak ahalmena zuen nahi izanez gero greba indarrez bukarazteko eta zerbitzu publikoetan zerbitzu minimoak ezartzeko; eta, garrantzitsuena, motibazio politikodun edota elkartasunez bultzatutako greba guztiak ilegalak bihurtu ziren handik aurrera.

Beraz, askatasun sindikalez mozorrotutako legegia berri hark ateak itxi zizkion, nolabait, langile mugimenduaren antolakuntza politikoari, lan zentroetako borrokak ahalik eta gehien murriztuz eta lokalizatuz eta langile mugimenduaren batasuna hautsiz, bai eta atomizazioa bultzatuz eta lan sektorekako egiturak eta mekanismoak ezarriz ere.



Greba mota berrien legeztatzeak soilik langileen lan baldintzen inguruko grebak onartzen zituen, eta horrek nolabaiteko arbitrariotasuna eragin zuen; finean, Estatuak erabakitzen zuen elkartasun grebak edota greba politikoak ziren; hala, Estatuak arbitrarioki, bere interes politikoen [sic] arabera, erabakitzen zuen zein greba zen politiko, zein elkartasunezko, eta zein legezko.

Azkenik, 1980an, Langileen Estatutua onartu zen; kode laboral hark azken bultzada eman zion prozesu instituzionalizatzaileari. UGTk eta PSOEk sostengatutako ituna izan zen, eta lan merkatuaren erreforma ekarri zuen: lehen aldiz, aldi baterako kontratuen figura sortu zen, sindikatuak kontrola-

Estatuak erabakitzen zuen elkartasun grebak edota greba politikoak ziren, finean; hala, Estatuak arbitrarioki, bere interes politikoen arabera, erabakitzen zuen zein greba zen politiko, zein elkartasunezko, eta zein legezko

tutako enpresa-batzordea marko ahalguztidun bihurtu zen, eta sistema elektoralaren arau berriak ezarri zituen. Handik aurrera, soilik enpresako komiteak dei zitzakeen langileen asanbladak, edo, bestela, lan zentroko langileen herenak. Horrekin eman zitzaion amaiera langileen antolakuntza zeharo murriztu eta azpiratu zuen prozesuari.

Laburbilduz, Frankismoak 1959ko Estabilizazio Planean izan zuen bere inflexio punturik sakonea, orduan erabaki baitzen, autarkiak eragindako porrot ekonomikoa eta isolamendu internazionala hausteko nahimenak bultzatuta, marko ekonomikoetan aldaketa bat gauzatzea. 1959ko Estabilizazio Planak kanpoko inbertsiorako irekiera, planifika-

zio ekonomikoa, Administrazioaren erreforma, eta hezkuntza eta osasun publikoaren zabalpena bultzatu zituen, hein batean. Frankismoak eskuartean zuen garapen proiektua aldi berean ekonomikoa eta soziala zela esan genezake: barne produktu gordina (BGP) handitzea, industrializazioa, kontsumoa eta bizi-maila hobetzea, eta hezkuntza hedatzearekin batera, beharrezkoa zen langile klasearen segmentu zabalak Estatuan integratzea.

Erregimenaren politika ekonomiko berri hura ez zen inoiz Francoren gustukoa izan, hark sendo eusten baitzien ideia tradizionalai eta ez baitzen inoiz pauso hori emateaz konbentzitua egon. Nolabait esatearren, diktadorea azkena izan zen garapenaren ideia batzen, baina bere egiten jakin zuen. Askotan Estabilizazio Plana Frankismoaren aldaketa soil gisa ulertzen den arren, egiazki Espainiako ekonomiaren internazionalizazioaren erantzule izan zen.

Gorteetan Ullastres eta Navarro Rubio ministroek Bretton Woods sistemaren errezeta bera proposatu zuten, ortodoxia liberal kapitalista eta aurrekontu zorrotzak ezarriz. Oro har, Estatu Batuek mundu-mailako ordena ekonomikoa bereganatzeko egindako enegarren saiakeraren adibidea izan zen. Hain justu, garai hartako adibideak sobera daude: Boliviako Eder Plana (1956), Argentinako Estabilizazio eta Garapen Plana (1958), Frantziako presidente De Gaullek bultzatutako Pinay-Rueff Plana (1958), eta Txilek 1959an martxan jarritako Estabilizazio Ekonomikorako Plana. Den-denak AEBko organismo ekonomiko eta finantzarioek kudeatuak.

Aldaketa hark “urrezko garaia” deitu izan zaion garapenaren aldia ekarri zuen, oparotasun ekonomiko handiko garaia, alegia. Hala ere, 70eko hamarkadatik aurrera, ekoizpen sistema kapitalistak mundu osoan izandako krisi larriak egoera hori goitik behera aldatu zuen. Hain zuzen, testuinguru berri hura egokitu zitzaion Trantsizioari, eta eze-gonkortasun ekonomiko larri hari Espainiako Estatuko eze-gonkortasun eta ziurgabetasun politikoa gehitu zitzaion, Francoren heriotzaren ostean.

Diktaduraren amaierak eta Espainiako ekonomia mundu mailako zirkuitu ekonomikoetan txertatzeko nahiak bultzatuta, Moncloako Akordioek eta 1978ko Konstituzioak berme juridiko, politiko eta ekonomikoak jarri zituzten abagune berriari erantzuteko. Era berean, arlo laboral eta sozialean izandako aldaketek eta hartutako neurriek borroka antifrankistaren oinordeko ziren antolakunde erradikalizatuenen erantzuna apaltzea izan zuten helburu.



Krisi testuinguru betean, hortaz, lehentasun handia eman zitzaion Estatuko goi aparatuetan Espainia Europako erakunde ekonomiko nagusienetan txertatzeko saiakerari. Jada Moncloako Akordioen garaian, Europako Ekonomia Erkidegoarekin (EEE) negoziazioak hasteko eskatzea erabaki zen. Horrela, Espainia hautagai ofizial bihurtu zen eskubide osoko kide gisa EEEn, Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoan (IAEE) eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegoan (Euratom) sartzeko.

Askok Trantsizioaren amaiera 1982ko PSOEn hauteskundeetako garaipenarekin lotzen badute ere, argitu beharra dago PSOE beti izan zela trantsizio politikaren erdiguneko agentea. Beraz, 1982an baino, 1986an kokatu genezake prozesu luze honi amaiera eman zion unea, hain justu urte hartan eman baitzitzaion amaiera 1959ko Estabilizazio Planetan hasitako ibilbideari, Espainia Europako Ekonomia Erkidegoan (EEE) sartu zenean.

Dena den, PSOEk aurrera eraman zuen politika ekonomikoa aurreko gobernuarekiko kontinuitista izan zen. Estatuak jardunbide ekonomikoa gidatzeko zuen indar mugatu hori merkatu globalaren menpeko egitura supranazionalen esku gelditu zen, besteak beste Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF), Munduko Bankuaren (MB), Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) eta Europako Ekonomia Erkidegoaren (EEE) patroien esku, alegia. Martínez González-Tablasek ondo definitu zuen metaketa-ziklo berri baten aurrean Kapitalaren ezkerak izan zuen paper protagonista *España 1988: un balance* liburuan:

“La crisis económica planteaba problemas de fondo a la regulación de las sociedades occidentales. El modelo de acumulación se encontraba agotado y las funcionalidades sobre las que se había asentado aparecían ahora como obstáculos para su recomposición. La integración de la clase obrera a partir de una lógica productivista, la sociedad de consumo basada en la progresión de los salarios reales, el propio protagonismo del Estado-gestor y garante del bienestar, surgían como barreras para el necesario saneamiento que tenía que proceder a un nuevo modelo de acumulación. Cuando la derecha encontraba dificultades para implantar la austeridad e imponer las nuevas reglas del juego, se abría la posibilidad de una opción de izquierda”.

PSOE 1982an boterera iritsi zen momentuan, Moncloako Akordioetan jasotako lehen doikuntzek ezarritako helburuak baino are handinahiagoak ezarri zituen alderdiak. 1983-1986 aldirako Epe Ertaineko Programa Ekonomikoak oinarritzko lau helburu hauek lortzearen garrantzia nabarmentzen zuen: inflazioa EEEn mailetara murriztea; inbertsioak

Askotan Estabilizazio Plana Frankismoaren aldaketa soil gisa ulertzen den arren, egiazki Espainiako ekonomiaren internazionalizazioaren erantzule izan zen

berreskuratzeko enpresa-soberakinak handitzea; merkatu-ekonomian oinarritutako zurruntasun ekonomikoa malgutzea eta liberalizatzea, eta industria birmoldatzearen bidez eskura zegoen produkzio egitura krisi ekonomikora “egokitzea”.

Politika berri horren ondorioz larriena langabeziaren hazkundera izan zen; Espainiako Estatuko biztanleria aktiboaren langabezia-tasa %22,1ekoa zen 1985ean; 1982an, aldiz, %16koa zen.

1982-1985 aldirako Epe Ertaineko Garapen Programak merkatu, zerbitzu eta kapitalen liberalizazioa, malgutzea eta lehia zabaltzearen garrantzia nabarmentzen zuen, eta enpresa-soberakinen berreskurapena ziurtatzeko interesa areagotzen zuen.

Kontuak kontu, azkenean Espainiak 1986ko urtarrilaren lehen lortu zuen, krisialdi bete-betean, Europako Ekonomia Erkidegora (EEE) sartzea; hala, bukatutzat jo ziren 1959ko Estabilizazio Planekin abiatu ziren saiakerak. Espainia EEEn sartzerako unean, langile mugimenduaren panorama benetan kezagarria zen. Miren Etxezarretak ezin hobeki azaltzen duen moduan, 80ko hamarkadan bizitza sozialak zituen baldintza berriek EEEn sartzearen onarpen pasiboa eragin zuten. Langabeziaren datu beldurgarriek mehatxatutako langileriari sinetsarazi nahi izan zitzaion EEEn sartzeak arazo hura konponduko zuela eta, gainera, sindikatuek Administrazio berriarekin izan zuten kooperazioak eta krisiaren aurrean langile mugimenduak erakutsi zuen gaitasun urriak akordio horien aurkako oposizio urri hura azaltzen dute.

Esan dezakegu, beraz, 1959an hasi zen berregituratze ekonomikoa eta Espainia ekoizpen eredu kapitalista modernoan txertatzeko ariketaren lehen fasea hemen amaitu zela. Espainiako ekonomia ataka larrian zegoen momentu hartan, krisiak jota, eta enpresek eta langileriaren zati handi batek Europako marko transnazonaletan jarri zuten biziraupenaren esperantza.



***Beraz, 1959an hasi
zen berregituratze
ekonomikoa eta
Espainia ekoizpen eredu
kapitalista modernoan
txertatzeko ariketaren
lehen fasea Espainia
EEEn sartzearekin
batera amaitu zen***

Era berean, EEEn sartzeak salto kualitatibo erraldoia ekarri zion kapitalismo espainiarrari; izan ere, bertan txertatu izanak prozesu askoz ere zabalago bati ireki zion bidea, Espainiako merkatuak irekitzeari eta protekzionismo oro ezabatzeko bideari, alegia. Beste hitz batzuekin esateko, Europako merkatu bateratu batean integratzeko bidea hasi zuen Espainiak, azken finean. Besteak beste, EEEn sartzeak zenbait ondorio izan zituen: aduana-mugak ezabatzea herrialde komunitarioentzat, kanpoko tarifa komuna ezartzea, konpetentzia librerako trabak desagertzea eta prezioak ezartzeko erabakietatik kanpo geratzea. Beste modu batera esanda, subiranotasun ekonomikoa (eta, ondorioz, politikoa) Europaren esku geratu zen handik aurrera.

Beraz, Trantsizio garaia funtsa, bere horretan, nekez uler genezake 1959ko Estabilizazio Planen nahia, 1977ko Moncloako Akordioaren eta 1978ko Konstituzioaren garrantzia, eta arlo ekonomiko zein laboralean hartutako erabaki guztiak ulertu gabe. Diktaduratik “demokraziarako” saltoa 1975 eta 1978 artean gauzatu zela ikasi izan dugu beti, baina Espainiako ekonomiaren azpiratze orokortua 80ko hamarkadan burutu zen. Bide horretan, Espainiak bultzatutako akordioak eta eredu laboral berria espainiar ekonomia Europako baldintzetara moldatzeko eta langile mugimendua apaltzeko mekanismoak besterik ez ziren izan. ●



***Europako Ekonomia
Erkidegoan sartzearekin bat,
subiranotasun ekonomikoa
(eta, ondorioz, politikoa)
Europaren esku geratu
zen handik aurrera***

BAKEAREN ETA ALIAN TZAREN ARTEAN

NATO-REN AURKAKO BORROKA
ESPAINIAN ETA HEGO EUSKAL
HERRIAN

Testua — **Naia Gurrutxaga**



Franco hil ondoren, Juan Carlos I. ezarri zuten Espainiako errege. Izendapen horrek fase politiko berri bati hasiera eman zion, Trantsizio izenez izendatu dena. Une hartan etapa berri bat ireki zen Espainiarentzat: Frankismoaren garaiko isolamendua alde batera uzteko beharra zegoen, eta Trantsizio garaiko gobernuen betebeharra izan zen Espainia ekonomikoki eta politikoki Mendebaldeko blokeratxikitzea, eta beraz, NATOn integratzea. Espainian NATOren inguruko eztabaida nagusiak 1986eko erreferendumaren testuinguruan eman baziren ere, Aliantzaren hastapenetara jo behar dugu prozesua ulertzeko.

Bigarren Mundu Gerraren ostean, sobietarren zabalpenari erantzunez, Bruselako Ituna firmatu zuten 1948. urtean Belgika, Frantzia, Luxenburgo, Ingalaterra eta Herbeheren artean. Herrialde horiek ez zuten nahikoa indar ekonomiko eta militarrik, eta, ondorioz, kanadarren eta ipar-amerikarren laguntza behar izan zuten nagusitasun ekonomiko zein militarra eskuratzeko. Itun horrek jarri zituen NATOren oinarriak.

NATOren sorkuntza prozesuan (1948) eta NATOren sorrera ekarriko zuen 1949ko apirilaren 4ko Washingongo Itunaren amaieran, bertako kideen artean luze eztabaidatu zuten Espainia eta Portugalen egoeraren inguruan. Bi herrialde horietako agintariak diktadoreak ziren, eta Aliantzaren parte izango ziren kideek ez zuten onartzen gobernu haien izaera diktatoriala. Hala ere, Portugalen partaidetzaren aurkako posturak erraz ekidin ziren, herrialdeak Erresuma Batuarekin izandako harreman historikoen ondorioz. Espainiaren kasuan, 1953. urtean hautsi egin zen Bigarren Mundu Gerraz geroztik Mendebaldeko herrialdeengandik jasandako isolamendua, Madrilgo Itunak sinatu zirenean. Itun hori Amerikako Estatu Batuek eta Espainiak sinatu zuten eta, haren bitartez, adostu zuten Amerikako Estatu Batuetako bost base militar Espainiako lurraldean ezartzea, laguntza militar eta ekonomikoaren truke.

1976ko urtarrilaren 24an Espainiaren eta Estatu Batuen arteko Adiskidetasun eta Lankidetzata Ituna sinatu zen, zeina urte hartako irailaren 21ean sartu zen indarrean. Itun horren bitartez, Espainiak Aliantzako kideekin zituen harremanak estutu zituen eta Trantsizioaren garaiko harreman diplomatikoei hasiera eman zien, herrialdearen kanpora begirako irudia aldatu baitzuen. Itun horren bitartez Espainiak NATOrekin zituen harremanak berrikusteko komisio bat eratu zen. 1977. urtetik aurrera, Espainiako Gobernua NATOn integratzeko asmoa azaleratzen hasi zen.

1981eko urriaren 28an, NATOn sartzeko aukeraztabaidatu zuten Diputatuen Kongresuan, eta sartzearen aldeko erabakiaren nagusitasuna azaleratu zen. Eskuin hegaleko integrazioaren aldeko botoa eman zuen, Suárezen UCDk barne. Hala, UCD (Unión de Centro Democrático) eta CD (Coalición Democrática) Espainia NATOn integratzearen alde azaldu ziren, baita CiU (Convergència i Unió) eta EAJ ere; kontrara, PSOE, PCE, PSUC, ERC, EE, HB eta beste talde minoritario batzuk Espainia NATOn integratzearen aurka posizionatu ziren.

Diputatuen Kongresuan nagusitu zen baieztokoaren aldeko jarrera, aldiz, ez zen espainiarren iritziaren isla. 1981eko urriaren 20an, *El País* egunkariak azterketa bat argitaratu zuen, Espainiak NATOn integratzearen inguruan espainiarrek zuten iritzia erakusten zuena. Bertan, soilik espainiarren %18k adierazi zuten integrazioaren aldeko iritzia, eta, kontrara, espainiarren gehiengoak (%52) kontrako iritzia adierazi zuten. Gainerakoek ez zuten iritzirik eman. Ikerketa Soziologikoen Zentroak (Centro de Investigaciones Sociológicas, CIS) egindako inkestetan ezezko botoaren bilakaera ikus daiteke. 1978ko urrian, ezezko botoaren aldekoak %15 ziren, eta ehuneko horrek gora egin zuen ondorengo urteetan. 1979ko uztailean, ezezko botoa %26ra igo zen eta, 1981eko uztailerako, zifra hori

Franco hil ondoren, etapa berri bat ireki zen Espainiarentzat: Frankismoaren garaiko isolamendua alde batera uzteko beharra zegoen, eta Trantsizio garaiko gobernuen betebeharra izan zen Espainia ekonomikoki eta politikoki Mendebaldeko blokeratxikitzea, eta beraz, NATOn integratzea

1976an Estatu Batuen eta Espainiaren artean sinatutako Adiskidetasun eta Lankidetzata Itunaren bitartez, Espainiak Aliantzako kideekin zuen harremanak estutu zituen eta Trantsizioaren garaiko harreman diplomatikoei hasiera eman zien, herrialdearen kanpora begirako irudia aldatu baitzuen

%30ekoa zen. 1981eko irailean, ezezko botoaren aldekoak %43 ziren.

UCDren Gobernuak, espainiarren iritziaren aurka, Espainia NATOn sartu zuen. Mugimendu hark eragin sakona izan zuen 1982ko hauteskundeetan; izan ere, UCDk miloika boto galdu zituen eta, ondorioz, PSOEk irabazi zituen hauteskundeok. Hainbat izan ziren UCDk erabaki hori hartzeko izan zituen arrazoiak. Alde batetik, alderdiaren barnean legeen eta erabakien inguruko iritzia oso desberdinak zeuden (Dibortzioaren Legearen inguruan, adibidez), eta desberdintasun horiek barne krisi bat eragin zuten. Barne krisi horri Antonio Tejerok gidatutako 1981eko otsailaren 23ko estatu kolpea gehitu behar zaio. Estatu kolpe horrek Gobernuaren ahultasuna argitara atera zuen eta, Espainiak kanpora begira behar zuen irudi ona lortzeko, ezinbestekoa zen amerikarrekin harremanak estutzea. Suárezek, ordurako, bere alderdiaren krisiaren eraginez, kargua utzia zuen, haren ordeztz Leopoldo Calvo Sotelo jarri zelarik Gobernuko presidente gisa. Leopoldo Calvo Sotelo Europako Erkidegoekiko Harremanetarako ministro izan zen 1978. eta 1981. urteen artean. Erreformismoaren parte izan ziren pentsalari asko bezala, bere ustetan Trantsizioa ez zen amaituko Espainia Europako Ekonomia Erkidegoan eta NATOn sartu arte; hala, horrek alderdiaren gainbehera eragin bazuen ere, herritarren nahiei entzungor egin eta Aliantzaren parte izatera pasa zen Espainia.

PSOE-REN POSIZIONAMENDU ALDAKETA

1976ko abenduaren 5etik 8ra, PSOEk XVII. Kongresua gauzatu zuen Madrilen. Bertan iritzia neutralistak eta estatubatuarren aurkakoak nagusitu ziren, eta neutralitatea oinarri izango zuen politika bat aplikatzeko beharra adierazi zen. Hurrengo Kongresuan (1979), halaber, postura neutralistaren beharra azpimarratu zen, baita NATOren integrazioari ezetz esateko iritzia ere.

1982. urtean, Espainia NATOn integratu zenean, PSOEren posizionamendua Aliantza Atlantikoaren aurkakoa izan zen, “OTAN, de entrada, no” esloganarekin. PSOE Gobernura iristearekin batera, ordea, alderdiaren iritzia aldaketa azaleratzen hasi zen. Horrek, noski, iritzia publikoan ere eragina izan zuen. Suárezen helburua Gobernura iristean barne mailan kontsentsua lortzea zen, eta kanpora begirako politikan ezinbestekotzat jotzen zuen Espainia Europako Ekonomia Erkidegoan integratzea, horrek Europarekiko gerturapenean pauso garrantzitsu bat baitzekarkion Espainiari. Espainiarren artean ez zegoen ia kontrakotasunik Europako Ekonomia Erkidegoan integratzeari zegokionez, bai ordea NATOn sartzeari zegokionez, iritzia orokorra kontrakoa baitzen.

1982. urtean, Espainia NATOn integratu zenean, PSOEren posizionamendua Aliantza Atlantikoaren aurkakoa izan zen, “OTAN, de entrada, no” esloganarekin. PSOE Gobernura iristearekin batera, ordea, alderdiaren iritzia aldaketa azaleratzen hasi zen

1980. urteko udaberrian, Espainia Europako Ekonomia Erkidegoan integratzearen aurka azaldu zen Frantzia. Beto horren aurrean, Espainiako Gobernua Aliantza Atlantikoan integratzearen aukera mahaigaineratzen hasi zen, Europako Ekonomia Erkidegoan integratzeko beharrezko baldintza zela aitzakiatzat jarrita. Izan ere, 1980ko hamarkada hasieran, NATOren parte ziren 15 herrialdeetatik 9 ziren EEEn parte, eta horrek argi erakusten du EEEn eta NATOren parte izatearen arteko lotura



Cartel propagandístico del PSOE pidiendo el NO

1980. urteko udaberrian, Espainia Europako Ekonomia Erkidegoan integratzearen aurka azaldu zen Frantzia. Beto horren aurrean, Espainiako Gobernua Aliantza Atlantikoan integratzearen aukera mahaigaineratzen hasi zen, Europako Ekonomia Erkidegoan integratzeko beharrezko baldintza zela aitzakiatzat jarrita. Izan ere, 1980ko hamarkada hasieran, NATOren parte ziren 15 herrialdeetatik 9 ziren EEEn parte, eta horrek argi erakusten du EEEn eta NATOren parte izatearen arteko lotura. Javier Rupérez UCDko Nazioarteko Harremanetarako idazkaria izan zenak esan zuen bezala, “oso zaila da Europar Batasunean sartzea, lehenago NATOn sartu gabe, gerora ikusi zenez eta Felipe González konturatu zen bezala”.

Testuingurua, beraz, espainiarrek NATOren aurka zuten posizionamenduak baldintzatzen zuen, baita PSOEren barnean XXVII. eta XXVIII. Kongresuetan nagusitu ziren iritziz neutral eta antiimperialistak ere. 1982ko hauteskundeetan PSOE atera zen garaile, eta alderdiak NATOn integratzeko prozesua gelditu zuen, Fernando Moránek 1982ko abenduaren 8an Bruselan aliatuei Kontseilu Atlantikoaren bilera batean azaldu bezala, “Espainiaren interes estrategikoen azterketa egiten zen bitartean, iraunkortasuna erreferendum baten menpe jarritz”. Hau da, Espainiaren integrazio prozesua gelditu egingo zen, nahiz eta Aliantzakoen aliatu segurua izaten jarraituko zuen. Bien bitartean, Defentsako Ministerioak eta Kanpo Ministerioak Espainia Aliantzaren parte izatearen inguruko ikerketa bat egingo zuten, eta, azkenik, erreferendum bat antolatuko zen.

1984. urtean, PSOEren Gobernuak aldaketa atlantista gauzatu zuen, “OTAN, de entrada, no” eslogana atzean utzi eta “vota sí en interés de España” eslogana aurkeztetaino. 1984ko abenduan, PSOEek



Cartel propagandístico del PSOE pidiendo el SÍ

XXX. Kongresua egin zuen eta bertan eztabaidatu zen NATOn mantentzearen puntua. Bozketan bertan baiezkoa nagusitu zen, NATOren parte izatearen aldeko 412 aurkeztu ziren (%71), aurkakoak 126 izan ziren (%22) eta 42 abstenitu ziren (%0,7). Kongresu hartan, Ezkerra Sozialistaren (Izquierda Socialista PSOEren barne korrontea) iritzia soilik izan zen NATOren integrazioaren aurkakoa, eta, ondorioz, liskar eta eztabaida gehiegirik gabe onartu zen NATOren inguruko iritziz aldaketa eta beraz, aliantza militarrean integrazioa.

PSOEek erreferenduma hitzeman zien Espainiako herritarrei, eta gizarteak NATOren aurka zuen posizionamendua aldatzeko, PSOEren Gobernuak eskura zituen tresna guztiak jarri zituen martxan.

Posizionamendu aldaketa hori hainbat intelektualen argumentuetan ikus daiteke, besteak beste 1984. urtean El País egunkarian Fernando Claudin eta Rudolfo Paramiok argitaratu zituzten idatzi hauetan: *OTAN: Razones para no salir/1* eta *OTAN: Razones para permanecer/2*. Bi autore horiek ibilbide politiko desberdina izan bazuten ere, garai hartan biak ziren PSOEren parte.

OTAN: Razones para no salir/1 artikuluan autoreok defendatzen zutenaz, mehatxu sobietarren aurrean “Mendebaldeko Europak defentsarako erakunde bat” behar zuen. Artikulu horretan, NATOtik ateratzeko inguruko hausnarketa bat plazaratu zuten autoreek. Bi autore horiek azpimarratzen zutenaren arabera, “Espainia NATOtik irteteak ez lieke mesederik egingo Europan distentsio edo armagabetze aurreikuspenei; mundu gerra gertatuz gero ere ez lituzke gure herrialdearen arriskuak murriztuko; aldez, NATOn irauteak, egungo estatusarekin baldintza jakin batzuetan, Espainiak distentsioa, desnuklearizazioa eta europar

desarma bultzatzeko aukera eskaini lezake”. OTAN: *Razones para permanecer*/2 artikuluan, hau esaten zuten bi autoreek gaiaren inguruan: “gure (Espainiaren) kanpo politikaren izaera aurrerakoia ren aldeko apustuak ez dute zertan, inolaz ere, NATO bai edo NATO ez aukeratik igaro”, eta, defendatu zutenaren arabera, “kontua da jakitea zer politika egingo dugun NATOn jarraituz gero; izan ere, lehen arrazoitzen saiatu garen bezala, gure kanpo-politikak ez luke inolako garrantzi positiborik izango armagabetzearen eta distentsioaren kausarako”. NATOren baitan ikusten zuten bakea lortzeko bidea, “Europar giza eskubideak errespetatzearen aldeko ekimen bakegileen pisua indartuko luke”, eta defendatzen zuten horixe zela aukerarik errealistena “espainiar demokraziarentzat”. Gainera, “jarri rera moralki kontsekuentea” zela defendatu zuten. Bestetik, azpimarratzen zuten, Espainia NATOtik irteten bazen, “beldur izan gaitezke Europako integrazio ekonomikotik ere baztertuta geratuko ote garen”.

Beraz, posizionamendu aldaketa bat ikus dezakegu PSOEren barruan, aldaketa horren adibide izanik, baita ere, José María Maravall. Hezkuntza eta Zientziako ministroa zenak erreferendumaren kanpainan adierazi zuenez, “NATOr e ezet esatea baseei (estatubatuarrei) bai esatea da betiko”.

PSOEk, erreferendumaren kanpainan bere posizionamendua justifikatze aldera, Espainiak Aliantza Atlantikoaren parte izaten jarraitzeko honako muga hauek ezarriko zituela zin egin zuen:

1. Espainiak Aliantzan duen parte-hartzeak ez du barne hartuko hura egitura militar integratuan sartzea.
2. Espainiako lurraldean arma nuklearrak instalatzeko, biltegiratzeko edo sartzeko debekua ezarriko da.
3. Estatu Batuek Espainian duten presentzia militarra pixkana murriztuko da.

Erreferenduma 1986ko martxoaren 12an egin zen. Gobernu sozialistak erreferenduma irabazi zuen: botoen %52,49 integrazioaren aldekoa izan zen, eta %39,8, berriz, aurkakoa. Beraz, ia 13 puntu gainera kokatu zen integrazioaren aldeko botoa. Milioi batetik gorakoak izan ziren boto zuriak (%6,53), %1,11 boto nuloak, eta abstentzioa %41,58koa izan zen. Aurkako botoa nagusitu zen Hego Euskal Herrian, Katalunian eta Las Palmasen.


NATO-REN AURKAKO MUGIMENDUA ESPAINIAKO ESTATUAN

1982. urtean, PSOEk hauteskundeak irabazi zituen urtean, alegia, Trantsizioari loturiko hainbat

1980ko hamarkadan, beraz, asko izan ziren gizarteak mahaigaineratu zituen problematikak. Hala ere, NATOren gaia izan zen Gobernuaren legimititatea auzitan jarri zuena. Izan ere, Gobernuak kontra zuen gehiengo sozial bati aurre egin behar izan zion. PSOEk NATOren inguruan zuen iritzia aldatu zuenean, are gehiago zabaldu zen NATOn integratzearen aurkako iritzi publikoa, eta NATOren aurkako mugimenduak indarra irabazi zuen

eztabaidak eta horien inguruan antolatutako mugimenduek garrantzia handia zuten oraindik ere. PSOEk bere jardunean integratu zituen pil-pilean zeuden eskaera batzuk, besteak beste, emakumeen borroka. Mugimendu feministak Dibortzioaren Legea onartu zedin borrokatu ostean, lege hori 1981. urtean onetsi zen. Ondoren, 1985. urtean, PSOE Gobernua n zela, abortua despenalizatzea lortu zen. PSOE boterean zegoela, mugimendu feministaren instituzionalizazioa hasi zen, batzuetan Gobernuaren instituzioetan zuzenean integratuz, eta, bestee tan, Gobernuak sortutako instituzioetan integratuz (Emakumeen Institutuan, adibidez). Hala ere, mugimendu feministako beste kide batzuen jarduna bereizi egin zen, eta beren jarduna asanblada lokaletan zentratu zuten.

Mugimendu ekologistak ere presentzia handia zuen; izan ere, Gobernuak espazio naturalen eta espezieen kontserbaziorako lege berri bat onartu bazuen ere, ondoren aldaketa horiek ez ziren aplikatu (homologazio europarraren eskakizunak medio). Hala ere, arlo horretan politika nuklearraren auzia





izan zen gairik garrantzitsuena. UCDk, Gobernuan zehar, hainbat plan nuklear aurkeztu zituen, eta herriarrek energia nuklearraren aurkako iritzia garatu zuten, horren adibide izanik hainbat proiektu etenaraztea (Lemoiz, Valdecaballeros).

Gazteen artean nahitaezko soldadutzaren aurkako mugimendua zabaldu zen, eta, azkenik, 1984. urtean, kontzientzia-objekzio legea onartu zen, presio mekanismo ugariren ondorioz.


Garai hartan, beraz, asko izan ziren gizarteak mahaigaineratu zituen problematikak. Hala ere, NATOren gaia izan zen Gobernuaren legitimitatea auzitan jarri zuena. Izan ere, Gobernuak kontra zuen gehiengo sozial bati aurre egin behar izan zion. PSOEek NATOren inguruan zuen iritzia aldatu zue-nean, are gehiago zabaldu zen NATOn integratzearen aurkako iritzi publikoa, eta NATOren aurkako mugimenduak indarra irabazi zuen. Gainera, kontuan hartu behar da NATOren aurkako mugimendu horrek ez zuela soilik mugimendu bakezale eta antimilitarista barnebiltzen, baizik eta demokraziaren bestelako izaera baten aldeko borroka gisa ere egituratu zen.




NATOren aurkako mugimendua 1980ko hamarkadaren hasieran sortu zen, ezkerreko hainbat alderdik Trantsizioaren lehen urteetako politikaren aurkako posizionamenduak bultzatuta. PTE (Partido del Trabajo) eta ORT (Organización Revolucionaria de Trabajadores) desagertu egin ziren –alderdi horiek zuten hausturaren aldeko posizionamendurik finkatuena–. Beraz, Mugimendu Komunista (MC) eta Liga Komunista Iraultzailea (LCR) izan ziren NATOren aurkako mugimendua bultzatu eta finantzatu zutenak, bai materialki, bai mugimendu bakezaleekin harremanak eraikitzen laguntzeko.

NATOren aurkako mugimenduaren lehenengo ekintza Torrejón de Ardozerako Lehen Martxa izan zen. Martxa horren bitartez, base estatubatuarren aurkako mezua zabaldu nahi zen eta, horretarako, 12 kilometroko martxa antolatu zuten; 20.000 pertsona inguruk parte hartu zuten ekintza hartan.

Martxaren arrakastaren ostean, MCK eta LCRk NATOren Aurkako Komisioa eratu zuten (CAO - Comisión Anti-OTAN). NATOren Aurkako Komisioa organizatiboki forma hartzen joan zen eta bertan hainbat talderen arteko koordinazioa finkatu zen. Talde horiek ez ziren alderdi politikoak, baizik eta komite eta auzoetako taldeak, baita talde ekologistak eta antimilitaristak ere. 1983ko maiatzaren 28an eta 29an, Erakunde Bakezaleen Lehen Topaketa egin zen Zaragozan, eta, bertan, berrogeita hamar erakunde baino gehiagok parte hartu zuten. CAOren garapenaren bitartez, estatuko talde ugariren arteko koordinaziorako baldintzak jarri ziren eta, horren ondotik, 1983ko uztailaren 9an, Erakunde Bakezaleen Estatuko Koordinadora (CEOP) sortu zen. Koordinadora horrek hasiera batean 60 talde barnebiltzen zituen, eta, zabalpen fase baten ondoren, 1986. urtean 130 talde baino gehiagok osatzen zuten. Koordinadora-
ren kontsigna “NATO ez, baseak kanpora” (“OTAN no, bases fuera”) zen, eta kontsigna horrekin batera beste ideia batzuk ere egin zituzten bere. Erreferenduma exijitu zuten, bai eta gastu militarra murriztea, Espainiako Estatuaren nuklearizazioa gelditzea eta, azkenik, bloke militarren aurrean neutralitate internazionala eskatu ere.

1983. urteko azaroaren 12 eta 13an, Estatuko Erakunde Bakezaleen Bigarren Topaketak egin ziren, eta estatuko 70 talde baino gehiagok hartu zuten parte. Mugimenduaren norabide eta oinarrien inguruan iritzi desberdinak plazaratu zituzten taldeek topaketa horietan. Hiru multzotan sailkatu daitezke topaketa horietan parte hartu zuten taldeak. Lehenik, PSOErekin bat egiten zuten taldeak (Movimiento por la Paz, el Desarme y la Libertad, Juventudes Socialistas, eta UGT); posizionamendu bakezaleak norbanakoen gain jartzen zituzten, auzia bera alderdietatik zein Gobernutik bereiziz. Bigarrenik, PCErekin bat egiten zuten taldeak (Justicia y Paz, Asociación por la Paz y el Desarme); estatubatuarrek Espainiako Estatuan zituzten baseen auziari ematen zioten zentralitatea, eta base horiek kentzea eskatzen zuten. Hirugarrenik eta azkenik, CEOP edo Erakunde Bakezaleen Estatuko Koordinadorak babestutako posizionamendua zegoen, “NATO ez, baseak kanpora” eslogana zuena; posizionamendu horrek lortu zuen gehiengoa topaketetan, eta Espainiako Estatuan geroz eta indar handiagoa hartu zuen koordinadorak.





AD 019/036



1984. urtean, CEOP koordinadorak eta CAOk indarrak batu zituzten eta Torrejóneko baserako laugarren martxa antolatu zen; izan ere, beharrezkotzat jo zuten PSOEek NATOren aurrean adierazitako aldeko posizionamenduen aurrean beren jarduna handia-gotzea, bai maila politikoan baina baita arlo sozialean ere. Laugarren martxa hartan 50.000 pertsona baina gehiago mobilizatu ziren. Gainera, Madrilen milaka pertsonak parte hartu zuten mobilizazio bat egin zen, erreferendumaren beharrezkotasuna azpimarratzeko, eta Espainiak NATOrekin harremanak mozteko eta baseak kentzeko eskatzeko.

PCEk, indarra irabazten saiatzeko, Comisión de Acción por la Paz y el Desarme (CAPD) sortu zuen PSOEko zenbait sektoreekin. 1984eko ekainaren 26ean, Adolfo Suárezen Centro Democrático y Social (CDS) alderdiarekin, PCEko Ramón Tamamesek gidatutako Erreferendumaren Aldeko Mahaia sortu zen. Mugimendu horrekin, Espainiako Estatuan NATOren aurkako mugimenduaren erreferentzialtasuna zalantzan jarri nahi zuten. Mahai horrek erreferenduma aldarrikatzen bazuen ere, ez zuen finkatu haren inguruan izan beharreko posizionamendua eta, azkenean, PSOEren Gobernuak 1986eko erreferendumaren berri eman zuenean, mahai hori desegin egin zen.

Torrejónerako bosgarren martxa 1986. urtean egin zen, eta martxa harekin eman zion hasiera NATOren aurkako mugimenduak erreferendumaren prestakuntza-prozesuari. Ezkerreko beste hainbat talde koordinadorara batu ziren erreferendumean ezezkoa defendatuz, besteak beste Partido Comunista de los Pueblos de España (PCPE).

Erreferendumaren testuinguruan, beraz, ikusita CDSk eta Erreferendumaren Aldeko Mahaiak ez zutela posizio garbirik erakusten, PCEk 1986eko urtarilaren 25ean Plataforma Cívica por la Salida de España de la OTAN sortu zuen, mugimendu bakezaleak hauteskondeetan ordezkaritza izan zezan. Plataforma horretan Erreferendumaren Aldeko Mahaiaren parte ziren eragile ugari hartzen zuten parte, baina ez CDSk. Plataformaren parte zirenak erreferendumak zuen garrantziaren kontziente ziren; izan ere, erreferendum horretan zehaztuko zen Espainiak aplikatuko zuen kanpo politika.

Martxoaren 12ko erreferendumean baiezkoa nagusitzeak ideologia ezkertiarreko jendearengan eragin handia izan zuen, eta, horren ondorioz, gizartearen zati handi bat PSOEtik ezkerrerago kokatu zen politikoki. Plataformak berak Izquierda Unida alderdi politikoaren sorreran funtsezko papera jokatu zuen. Izquierda Unida alderdia 1986ko apirilaren 27an sortu zen, eta bertan alderdi ezkertiarretako

hainbat pertsonak zein hainbat talde kultural eta sozialek parte hartzen zuten. 1986. urtean aurkeztu ziren lehen aldiz hauteskondeetara. Hauteskunde horietako programako puntuen artean aurkitzen ziren Espainia NATOtik ateratzea, bakea eta neutralitate, 1982. urtean AEBrekin firmatutako akordioa bertan behera uztea eta base estatubatuarra Espainiatik kentzea.

HEGO EUSKAL HERRIAREN KASUA

Euskadin egin ziren galdeketen arabera, 1986. urtean, Euskadin botoen %80 NATOn sartzearen aurkakoa zen, eta horixe gertatu zen, Hego Euskal Herrian NATOn integratzearen aurkako botoek irabazi baitzuten. Gipuzkoan ezezko botoak %68,2 izan ziren; Bizkaian, %64, 2; Araban, %59,5, eta, Nafarroan, %52,7.

Emitza horiek erreferendumaren aurreko testuinguruan sortu ziren NATOren aurkako mugimenduen lanaren emaitza izan ziren. Erreferendumaren aurreko urteetan, bi mugimendu zabal sortu ziren: “La movida anti-OTAN”, batetik, eta “Euskal Herriaren Burujabetasunaren alde, NATOren aurka” manifestua firmatu zutenen mugimendua, bestetik.

1985eko azaroaren 2an, “Euskal Herriaren Burujabetasunaren alde, NATO-ren aurka” manifestua aurkeztu zuten Bilbon Joseba Goñik, Koldo Gorostiak eta Elias Amezagak. Mugimendu zabal horren barruan Herri Batasunako zenbait kidek parte hartzen zuten, eta ikuspegi “abertzale eta antiimperialista” zuen manifestu bat zen. “Gure herriaren eta

NATOk kide izan ala ez ebazteko erreferendumaren aurreko urteetan, bi mugimendu zabal sortu ziren: “La movida anti-OTAN”, batetik, eta “Euskal Herriaren Burujabetasunaren alde, NATOren aurka” manifestua firmatu zutenen mugimendua, bestetik

Manifestuaren partaideek argi eta garbi adierazi zuten NATOk bere burua “demokraziaren defentsarako eta mundu libre baterako” aliantza gisa definitzen bazuen ere, horren atzean “AEBren esku-hartze ekonomikoa eta ideologikoa defendatzen zuen tresna” ezkutatzen zela, baita “Mendebaldeko munduan dauden botere-egiturak defendatzen” zituela ere

munduko herri zapaldu guztien askapen osoa defendatzen” zuen, eta “(mundu gerrara garamatzan) ez-le-rokatzearen alde, eta aldi berean munduko edozein alderditan askatasunaren alde burrukatuz diharduten herri zapalduekiko solidaritatearen alde” agertzen zen.

Manifestuaren lehen lerroetan azpimarratzen da Espainiak NATOn jarraitzen bazuen Hego Euskal Herriaren “aurkako eraso zuzenagoa” ekarriko zuela, eta “NATO defendatzea Euskal Herriaren subiranotasun nazionalari uko zuzena egitea” zela. Horri gehitzen zioten “Espainiako Estatuaren oinarriak zalantzan jartzen dituen edozein mugimendurentzako errepre-sio gehiketa bat” zekarrela Aliantzaren parte izateak.

Mugimendu horren lehenengo mitina Tuteran egin zuten, “Bardeetako eguna” izendatu zuten, eta bertan Bardeetan dagoen tiro eremua eraistea eskatu zuten, espazio horretan NATOko hegazkinek zein Espainiko armadak tiro praktikak burutzen zituztelako. 70eko hamarkadan hasita hainbat mobilizazio gauzatu ziren eremu hori ixteko exijituz. Igande hartako mobiliza-zioan 3000 pertsonatik gora elkartu ziren aldarri ho-riek zabaltzeko. Manifestuan adierazten zenez, “NATO defendatzeak Bardeetako Tirorako Poligonoari eustea baitakar, non Mendebaldeko European diren AEBko Ai-reko Armadaren ariketetatik %60 egiten diren. Ari-ketok, gero, edozein kontinentetako edozein herriren aurka egingo diren bonbaketak hilgarriago bilakatzeko balioko dute”.

Manifestuaren partaideek argi eta garbi adierazi zuten NATOk bere burua “demokraziaren defentsa-rako eta mundu libre baterako” aliantza gisa defini-tzen bazuen ere, horren atzean “AEBren esku-hartze ekonomikoa eta ideologikoa defendatzen zuen tresna” ezkutatzen zela, baita “Mendebaldeko munduan dau-den botere-egiturak defendatzen” zituela ere. “Euskal Herriaren Burujabetasunaren alde, NATOren aurka” manifestuak eragin handia izan zuen euskal herri-tarrengan. Gainera, ezin da pentsatu manifestuaren eragina HBren jarraitzaileengana soilik iritsi zela;

izan ere, erreferendumaren emaitzek islatzen zu-ten ehunekoek ikusarazten dute HBko jarraitzaileez gain, gizarteko kapa zabalenetara iritsi zela NATO-ren aurkako diskurtsoa.

EAJko kide batzuek ere ezezko botoa eman zioten NATOn integratzeari. EAJko beste kide batzuek erre-ferendumaren testuinguruan beren posizioa aldatu zuten. EAJk, hasiera batean, ez zuen gaiarekiko posi-zionamendurik hartu, esanez “Madrilgo asunto bat” zela eta beraz haiek “ez zirela sartuko gai horretan”. Horren ostean, boto askatasuna aldarrikatu zuten. Hala ere, erreferendumaren eguna geroz eta gertua-go zegoenean, baiezko botoa aldarrikatu zuten. Dena den, fase amaierako botoaren inguruko desadosta-sunak zeuden EAJ alderdiaren barnean; hain zuzen ere, bi sektore nagusi banatzen ziren: “kritikoak” eta “ofizialistak”. Bigarren sektore hori izan zen erre-ferendumaren baiezkoa bultzatu zuena, eta Carlos Garaikoetxeak, sektore “kritikoko” kide zen lehen-dakari ohiak, ezezkoa eman zuen, esanez ea “zein segurtasun nazional eta zein muga defendatzen di-tugun euskaldukok, eta hauek ote diren euskaldun batzuk besteengandik bereizten dituztenak”.

Ondorio gisa esan dezakegu PSOEk bere burua hasiera batean UCDren aurka kokatu bazuen ere, hauteskundeak irabazi ostean UCDren bide berdina jarraitu zuela. Horrela, UCDren aurkako kanpainan NATOren aurkako posizionamendua aldarrikatu zuen, eta, ondorioz, hauteskundeak irabazi ostean bitarteko guztiak erabili behar izan zituen espainia-rren iritzia aldatzeko. Gainera, Espainiako Estatu osoan NATOren aurkako mugimenduaren indarra handitu egin zen PSOEren posizionamendu aldake-tarekin, horren adibide izanik Hego Euskal Herrian “Euskal Herriaren Burujabetasunaren alde, NATO-ren aurka” manifestuaren erreferentzialtasuna, zei-nak erakusten baitigu Hego Euskal Herrian NATO-ren aurkako mugimenduak izandako eragina, ezezko botoak nagusitu baitziren. ●

“Euskal Herriaren Burujabetasunaren alde, NATOren aurka” manifestuak eragin handia izan zuen euskal herritarrengan. Gainera, ezin da pentsatu manifestuaren eragina HBren jarraitzaileengana soilik iritsi zela; izan ere, erreferendumaren emaitzek islatzen zuten ehunekoek ikusarazten dute HBko jarraitzaileez gain, gizarteko kapa zabalenetara iritsi zela NATOren aurkako diskurtsoa

Argitalpena
2025KO URRIA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa eta
diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Licencia


Editoreen oharra: Artekako artikuluetan ageri diren ideia,
baieztapen eta ondorioak artikuluko bakoitzaren egilearenak
dira.

